

Bartolome Ertzilla
Kontserbatorioa eta
Musika Eskola

DURANGOKO UDALA



Escuela de Música
y Conservatorio
Bartolomé Ertzilla

AYTO. de DURANGO

Z

ZENTROKO

H

HEZKUNTZA-

P

PROIEKTUA

**BARTOLOMÉ ERTZILLA
MUSIKA ESKOLA ETA
KONTSERBATORIOA**

Durango, 2026ko otsailaren 6a

AURKIBIDEA

1. Zentroko hezkuntza-proiektuaren justifikazioa
2. Identitate-printzipioak
 - 2.1. Zentroaren lan-testuingurua
 - 2.1.1. Musika-irakaskuntza espezializatua udalerrian eta ingurunean
 - 2.2. Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolaren jatorria eta garapena
 - 2.3. Ikasleen jatorria
 - 2.4. Egitura organikoa eta normatiboa
 - 2.4.1. Araudi aplikagarria
 - 2.4.2. Erakunde autonomoaren egitura
 - 2.4.3. Partaidetza-eredua
 - 2.5. Lokala eta azpiegiturak
 - 2.5.1. Lokala
 - 2.5.2. Presentzia web-orriaren bidez eta sare sozialetan
 - 2.5.3. Kudeaketa akademikoko plataforma (CentrosNet)
3. Zentroaren xedea
 - 3.1. Misioa, ikuspegia eta balioak
 - 3.2. Zentroaren helburu orokorrak
 - 3.3. Helburu estrategikoak
4. Zerbitzuen aukera
 - 4.1. Informazioa, orientabideak eta aholkularitza
 - 4.2. Musika Eskola
 - 4.3. Gradu profesionaleko Kontserbatorioa
 - 4.4. Ingurunea musikarekin dinamizatzea, jarduerak eta kontzertuek dakarten eraginaren bidez
 - 4.5. Musika-tresnen espezializazioak eta irakasgaiak
 - 4.6. Beste zerbitzu batzuk
 - 4.7. Zerbitzuen aukerako beste eduki batzuk
5. Irakaskuntzaren antolamendua, prestakuntza-plana eta arduraldiak
 - 5.1. Irakasleak eta ikasleak
 - 5.2. Musika Eskola
 - 5.2.1. Metodologia
 - 5.2.2. Ebaluazioa
 - 5.2.3. 1. maila
 - 5.2.4. 2. maila
 - 5.2.5. 3. maila
 - 5.2.6. 4. maila
 - 5.2.7. Eskaintza helduentzat eta gazteentzat
 - 5.3. Gradu profesionaleko Kontserbatorioa
 - 5.3.1. Metodologia
 - 5.3.2. Ebaluazioa
 - 5.3.3. Hezkuntza-eskaintza
 - 5.3.3.1. Kontserbatorioko taldeak
 - 5.3.3.2. Irakasgaien taulak eta prestakuntza-ibilbideak
 - 5.3.4. Ikasleek udalerriko jardueretan parte hartzea
 - 5.4. Beste hezkuntza-eskaintza batzuk
 - 5.4.1. Jarduera osagarriak

5.4.2. Emanaldi pedagogikoak

5.4.3. Jardunaldiak, ikastaroak eta tailerrak

6. Alderdi pedagogikoak eta antolakuntzakoak

6.1. Aniztasunari arreta

6.1.1. Hezkuntza-premia bereziak

6.1.2. Irakaskuntza indartua

6.1.3. Urrutiko irakaskuntza

6.2. Hezkidetza, genero-estereotipoak saihesteko

6.3. Kulturartekotasuna, aniztasuna eta bizikidetza sustatzeko neurriak

6.4. Hezkuntza-eskaintza

6.5. Orientabideak eta tutoretza

6.6. Sartzeko eta igotzeko sistema

6.7. Hizkuntzen erabilera eta tratamendua

6.8. Trebakuntza eta berrikuntza

6.9. Musika-tresnak eta espazioak maileguan hartzea

6.9.1. Musika-tresnak

6.9.2. Ikasgelak

6.9.3. Beste espazio batzuk

7. Zentroko hezkuntza-proiektuaren indarraldia eta prozedura

ERANSKINAK

1. mailako ikasketa-plana

2. mailako ikasketa-plana, haurrak

2. mailako ikasketa-plana, helduak eta gazteak

3. mailako ikasketa-plana

4. mailako ikasketa-plana

Zentroko antolakuntza-egituraren organigrama

Ebaluazio-Plana

1. Zentroko hezkuntza-proiektuaren justifikazioa

Durangoko Udalaren Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolaren zentroko hezkuntza-proiektuak gure izaera, helburua eta antolakuntza definitzen ditu. Hezkuntza-komunitatea osatzen dutenen askotariko ikuspuntu eta interesen adostasunaren emaitza da, eta mugak ere arduraz kontuan hartu dira. Idazketa behar bezain malgua bilatu da, beti aldakorra den inguruneari egokitu ahal izateko, baita behar bezain idazketa zehatza ere, erreferentzia eta gida izateko zentroaren parte direnzentzat edo zentroarekin nolabaiteko harremana dutenentzat.

Premisa horiekin, dokumentu honek atal hauek ditu:

- Ingurunearen deskribapena, zentroaren historia eta egitura, eta identitatea zehazten duten gainerako baldintzak.
- Zentroaren xedea, helburu orokorrak eta lehentasunak, zentroaren jarduna definituko dutenak.
- Zentroak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen aurkezpena.
- Irakaskuntzaren antolakuntza orokorra eta mailetan banatzea.
- Alderdi metodologiko nagusiak, zentroko ikasketa-proiektuan garatzen direnak.
- Zentroaren hezkuntza-proiektua aldatzeko prozedura.

2. Identitate-printzipioak

Bartolome Ertzilla Kontserbatorioa eta Musika Eskola Durangoko Udalaren erakunde autonomo bat da, eta musikaren irakaskuntza arautuan eta ez-arautuan espezializatuta dago.

2023-24 ikasturtean, 27 irakasle aritu dira zentroan, eta 770 lagun ingururi eman dizkiete klaseak, 17 espezializatetan.

2.1. Zentroaren lan-testuingurua

Durangoko udalerrian 29.767 biztanle daude. Hala ere, zentroaren eraginpeko eremu geografikoa, Durangaldea, askoz handiagoa da. Besteak beste, udalerri hauek daude barnean: Durango, Iurreta, Abadiño, Elorrio, Berriz, Izurtza, Garai eta Mañaria.

Durango eskualdeko hiriburu kulturala da, eta bertan daude hizkuntza-eskola, batxilergoko institutua, helduentzako trebakuntza, lanbide-heziketa eta lehen hezkuntzako zein bigarren hezkuntzako ikastetxeak, bai publikoak bai pribatuak. Horiez gain, ekipamendu kultural hauek daude: San Agustín Kultur Gunea, Plateruena Kultur Aterpea, Kuruzesantu Museoa, Landako Gunea, Arte eta Historia Museoa, Bizenta Mogel Biblioteka... Hortaz, eskaintza kulturala oparoa eta askotarikoa da.

Bestalde, herritarren ekimen eta elkarte askok udalerriko bizitza kulturala eta musikala dinamizatzen dute. Adibidez, Durangon dute egoitza Durangoko Orfeoia, Doinuzahar eta Bogoroditsie abesbatzek, Silboberri Txistu Elkartek, Jaizale Txistu Elkartek, Herri Maite Akordeoi Elkartek eta Arandoño Kultur Elkartek.

Bereziki aipatzekoa da Tabira musika-banda, zeinari esker horrelako taldeen tradizioari eutsi baitzaio udalerrian. Bestalde, hainbat antzerki-konpainiak Durangon edo udalerri mugakideetan dute beren egoitza; esate baterako, Ganso&Cia., Markeliñe, Gorakada eta Karrika konpainiek. Zenbait dantza-taldek ere bai; adibidez, Kriskitinek. Azkenik, izaera sozial nabarmena duen Bizidun elkarte aipatu behar da.

Lehentasunezko lankidetzaharremanak finkatuko dira ekipamendu, elkarte kultural eta konpainia horietako batzuekin, eta jada badaudenak indartu egingo dira.

Udalerritik urrutixeago baina Bizkaiko Lurralde Historikoaren baitan daude BOS eta ABAO, egoitza Bilbon dutenak.

2.1.1. Musika-irakaskuntza espezializatua udalerrian eta ingurunean

Musika-irakaskuntza arautuaren barruan, gurea eskaintza hori duen zentro bakarra da udalerrian eta Durangalde osoan. Zentro hau ez balego, gradu profesionaleko musika-ikasketak egin nahi dituztenek beste udalerri batzuetara joan beharko lukete; Bilbora, adibidez.

Musika-irakaskuntza ez-arautuari dagokionez, musika-akademiak badaude udalerrian. Eta hainbat musika-eskola daude Durangaldean ere.

2.2. Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolaren jatorria eta garapena

Tradizioz, musika-interesak sustrai sakonak izan ditu udalerrian. Horrenbestez, jende dezente aritu da musika ikasten eta egiten; baita musikari entzutetsuak ere, esate baterako, Bartolome Ertzilla bera, hain zuzen ere, haren izena hartu du zentro honek.

Errealitatea ikusirik, Udalak Bartolome Ertzilla Musika Kontserbatorioa sortu zuen 1982an, gaur egungo Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorioa. Zentroa abiarazi zenean, zazpi irakasle zeuden, eta plantilla handitzen joan da modu mailakatuan. Hasiera batean, San Roke eskolan zegoen, egungo Zabalaran. Hurrengo urtean, Kurutziaga ikastolara eta Salesen txaletera eraman zen. 1986an, Patxi Zurikarai alkate zela, zentroa egungo kokapenera lekualdatu zuten, hiribilduko eskolen eraikin birgaitura. Montevideo hiribidera aldatu zenean, irakasle gehiago sartu ziren, eskaera handia zelako eta ikasle kopurua handitu zelako.

Eraikina, berez, hasierako diseinuaren antzeko samar dago orain. Nolanahi ere, berritze-lan batzuk egin dira urte hauetan, ikasgelak eskakizun akademikoetara egokitzeko. Kanpoaldean, aldaketarik handiena eraikina isolatzen zuen inguruko horma eraistea izan da; era horretan, inguru osoa herritarren eskura dagoen parke bat da orain.

Azkenik, aipatzekoa da instalazio, irakasle eta baliabide berak daudela zentroko bi musika-irakaskuntza motetarako: ez-arautua Musika Eskolan antolatuta dago; eta arautua, berriz, gradu profesionaleko Kontserbatorioan. Azken horrek 2006-2007 ikasturtean lortu zuen baimena.

2.3. Ikasleen jatorria

Ikasle gehienak Durangotik eta Durangaldetik datoz. Dena den, musika-irakaskuntza profesionaleko ikasle dezente urrutiago dauden beste udalerrri batzuetatik datoz; adibidez, Amorebieta-Etxanotik (Zornotza), Elgoibarretik, Usansolotik eta Galdakaotik. Probintzia mugakideetako udalerrietatik ere badatoz batzuk; Oñatitik, esate baterako.

2.4. Egitura organikoa eta normatiboa

2.4.1. Araudi aplikagarria

Estatuko lege orokorrak dira aplikagarri Musika Eskolan eta gradu profesionaleko Kontserbatorioan, eta tokiko erakunde baten mende dagoen erakunde autonomo bat denez gero, horrelako erakundeei dagozkien lege eta arauak ere aplikagarri zaizkio. Musikako hezkuntza-zentro bat izanik, bereziki garrantzitsuak dira hezkuntzako lege organikoak eta haiek garatzen dituzten arauak eta erregelamenduak. Halaber, hezkuntzaren arloko eskumena Eusko Jaurlaritzaren eskuetan dagoenez, hark onartzen dituen dekretuak, erregelamenduak eta aginduak ere aplikagarri zaizkio. Garrantzitsuenak hauek dira:

- 2/2006 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzkoa (LOE).
- 3/2020 Lege Organikoa (LOMLOE), Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa (LOE) aldatzen duena.
- 64/2024 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolena.
- 1577/2006 Errege Dekretua, musikako lanbide-ikasketen curriculumaren oinarriko alderdiak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arauturikoak, finkatzen dituena.
- 229/2007 dekretua. Honen bidez ezartzen da musika-ikasketa profesionalen curriculum eta ikasketa horietan sartzeko probak.
- Hezkuntzako sailburuaren 2021eko apirilaren 26ko agindua. Horren bidez arautzen dira musika-ikasketa profesionalak egiten dituzten ikasleen ebaluazioa, kurtsoz igotzea eta iraupena.
- 2009ko urtarilaren 20ko ebazpena, Hezkuntza Berrikuntzari buruzkoa, musika-ikasketa profesionaletarako sarrera-probak eta haiek egiteko prozesua arautzen eta deitzen dituena.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuordetzaren ebazpena, ikasturte bakoitzaren antolaketari buruzkoa.

Zentroak bere araudia du, eta hartan zehazten dira egitura, funtzionamendua, helburuak eta egitarau pedagogikoa. Araudia dokumentu hauek osatzen dute:

- Erakunde autonomoaren estatutuak.
- Zentroko hezkuntza-proiektua, zentroaren ildo orokorrak definitzen dituena.

- Antolakuntza- eta funtzionamendu-erregelamendua, zentroaren antolakuntza-egitura, funtzionamendua eta bizikidetzara-erakundeak zehazten dituenak, besteak beste.
- Zentroko ikasketa-proiektua, helburu orokorrak zentroaren irakaskuntzara egokitzen dituenak eta helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak mailen arabera banatzen dituenak. Irizpide metodologikoak eta tutoretza-ekintza ere jasotzen ditu. Irakasgai bakoitzaren ikasgelarako programazioak horren baitan daude.
- Plan estrategikoa, zentroak hainbat urtetan jarraituko dituen ildoak eta helburuak finkatzen dituenak.
- Zentroko urteko plana, zentroaren urteko helburuak eta jarduketara-planak zehazten dituenak. Orobat, jardueren aurreikuspena, eskola-egutegia, langileen trebakuntza-plana, kudeaketa-adierazleak eta ikasturtea kudeatzeko bestelako informazio garrantzitsua biltzen ditu.
- Zentroko urteko plana azaltzen duen memoria, urteko kudeaketa-plana, ikasturtean izandako gorabeherak eta hurrengo urteko planean txertatu beharreko hobekuntza-proposamenak ebaluatzeko.
- Zentroko hezkuntza-eskaintza.
- Aurrekontua eta prezio publikoak.
- Lankidetzara-hitzarmenak. Ikasturtez ikasturte, talde, elkarte eta erakundeetako lankidetzara-hitzarmenak egin edo berritzeko aukera aztertuko da.
- Aurreko dokumentuetako baten batek garatu eta/edo zehazten duen beste edozein barne-araudi.

2.4.2. Erakunde autonomoaren egitura

Estatutuei jarraikiz, erakunde autonomoaren agintea presidenteari eta Gobernu Batzordeari dagokie. Gerentea ohiko zuzendaritzako organo goren da.

Erakundeak EFQM kudeaketa-eredua darabil (European Foundation for Quality Management), kudeaketa aurreratu egungo eredua, Euskalitekin sustatzen duena. Horren ondorioz, prozesuak hainbat lan-arlotan antolatzen dira, eta, plangintza egiteko garaian, zentroaren misioa, ikuspegia eta balioak aintzat hartzen dira, bai eta plan estrategikoak ere.

Helburuak garatzeko behar diren zerbitzuak eta jarduerak bideratze aldera, erakunde autonomoa sei atal nagusitan antolatuta dago:

- a) Erakunde autonomoko Kontseilu Errektorea eta Presidentea.
 - b) Gerentzia.
 - c) Irakaskuntza.
 - d) Administrazioa.
 - e) Atezaintza.
 - f) Ordezkaritza goreneko organoa.
- a) Erakunde autonomoko Gobernu Batzordea eta presidentea:
Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskola erakunde autonomoaren gobernu eta administrazioa presidenteari eta Gobernu Batzordeari dagokio. Erakunde autonomoaren estatutuek eta zentroko barne-araudiak gidatzen du Gobernu Batzordearen jarduna.
 - b) Gerentzia:
Zentroko kudeaketa mailarik handiena dagokio gerentziari, bai langileekin lotuta, bai helburuak eta lehentasunak finkatzearekin lotuta.
 - c) Irakaskuntza:
Erakunde autonomoaren atal nagusia da, musika-irakaskuntza arautua eta ez-arautua eskaintzeko xedeari zuzenean erantzuten diona. Horrez gain, eragile aktiboa da musika-kultura herriararen artean hedatzeko diseinatzen diren proiektuetan.
Irakasleak, erakunde autonomoaren barruan, zentroko irakaskuntza-jarduerara guztiak prestatzeaz arduratzen dira, baita planifikatu, garatu eta koordinatzeaz ere, beste zeregin batzuen artean.
Irakaskuntzako ordutegian liberazioak egin ahalko dira interes pedagogikoko proiektuak egiteko.

Irakasleak mintegitan, batzorde pedagogikoan, klaustroan eta zuzendaritzan antolatuta daude. Klaustroa irakasleek parte hartzeko zentroko organoa da, eta denak dira horren parte. Gainera, irakasleak hainbat prozesutan antola daitezke, talde-lanean aritzeko hainbat ekintza-esparrutan.

- d) Administrazioa:
Gerentziarekin batera, administrazio-unitateak erakunde autonomoaren kudeaketa ez-pedagogikoa bideratzen du.
- e) Atezaintza:
Atezaintzak ikasgeletatik kanpoko ordena zaintzen du, eta beste funtzio osagarri batzuk ere baditu.
- f) Ordezkaritza goreneko organoa:
Zentroko hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonak eta taldeek parte hartzeko organoa da. Interes-talde nagusiek ordezkaritza dute ordezkaritza goreneko organoan: irakasleak, familiak, erakunde autonomoko presidentea, irakasleak eta administrazio eta zerbitzu-tako langileak.

Garbiketa Zerbitzua Durangoko Udaletik kudeatzen da zuzenean, eta ez erakunde autonomoaren bitartez.

2.4.3. Partaidetza-eredua

Hezkuntza-komunitate osoak benetan parte hartu dezakeela ziurtatzeko, partaidetza moduak xehe jasota daude antolakuntza- eta funtzionamendu-erregelamenduan eta beste dokumentu batzuetan:

- Familiek eta ikasleek batzarraren eta guraso-elkartearen bidez parte hartuko dute.
- Ikasleek batzarren eta ikasle-elkartearen bidez parte hartuko dute.
- Irakasleek mintegiko bileren, Batzorde Pedagogikoaren (zentroko irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua) eta klaustroaren bidez parte hartuko dute, baita prozesu- eta hobekuntza-taldeetan ere.

Estamentu horiek guztiak ordezkaritza goreneko organoaren bileretan koordinatuko dira.

Zentroko zuzendaritzak lan egingo du familiek eta ikasleek parte hartu dezaten bai batzarretan, bai ordezkaritza goreneko organorako hauteskundeetan.

2.5. Lokala eta azpiegiturak

2.5.1. Lokala

Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolaren eraikina Durangoko Montevideo hiribideko 7.ean dago. Instalazio hauek daude, zer jarduera egiten diren kontuan hartuta:

Irakaskuntzarako espazioak:

- 21 ikasgela:
 - Musika-tresnen eta kantuaren banakako klaseetarako.
 - Ganbera, talde eta abesbatzen klase kolektiboetarako.
 - Musika-hizkuntzako eta musika eta mugimenduko klaseetarako.
 - Beste irakasgai batzuen klase kolektiboetarako (teorikoak, musika-informatika...).
- 120 toki dituen antzoki bat. Ikasleen kontzertuetarako eta zentroko talde handiek (orkestrak, bandak eta Bart Sax) entseguak egiteko erabiltzen da. Beste talde batzuek edo irakasleek ere erabili ahalko dute.

Zentroak ikasgelak utzi ahalko dizkie ikasleei, barne-araudian zehazten den moduan eskatzen baldin badute. Zentroko beste espazio eta bulego batzuk:

- Irakasleentzako aretoa.
- Zuzendaritzaren bulegoa.
- Administrazioa.
- Atezaintza.

- Fotokopiagailuaren gela.
- Garbiketa-materialerako gela.
- Materialaren biltegia.
- Mantentze-lanetarako eta galdaren aretoa.

2.5.2. Presentzia web-orriaren bidez eta sare sozialetan

Erakunde autonomoak www.bartolomeertzilla.durango.eus web-orria du Interneteko presentzia ziurtatzeko, hezkuntza-eskaintzaren edukia zein zentroaren ekitaldiak ezagutzera emateko eta herritarrak artatzeko. Durangoko Udalaren web-orriaren baitan dago, eta Udalak berak egiten ditu mantentze-lanak.

Zentroak sare sozial hauek darabiltza bere jardueraren berri eman eta herritarrekin harremanetan egoteko:

- Facebook
- Instagram
- YouTube

2.5.3. Kudeaketa akademikoko plataforma (CentrosNet)

Ebaluazio-prozesuaren barruan, zentroak CentrosNet plataforma ezarri du ikasle eta familiekiko komunikazioa errazteko.

Plataformara Internet bidez eta gailu mugikorren bidez (Android eta iOS sistema eragileak) sar daiteke, eta ebaluazioa helarazteko bitarteko lehenetsia da.

Beste edozein informazio mota behar denean, irakasleekin edo administrazioarekin komunikatzeko bidea bertaratzea edo e-posta izango da.

3. Zentroaren xedea

3.1. Misioa, ikuspegia eta balioak

Helburua

Izateko gure arrazoia kalitate oneko musika-hezkuntza eta -trebakuntza eskaintzea da, malgua eta pertsonalizatua. Musika-estilo guztiak biltzen ditu eta 4 urtetik aurrerako ikasleei zuzenduta dago, adin-mugarik gabe.

Helburua hiru eskaera hauei erantzutea da:

- Gure ikasleak heztea eta motibatzea musikaz goza dezaten.
- Ikasleak trebatzea musikari amateurrak izan daitezen.
- Gerora profesionalizatzeko gaikuntza ematea.

Orobat, konpromisoa dugu gizartearekin, eta musika hedatzeko bitartekari-lana hartzen dugu gure gain, ingurua kulturalki aberasten laguntzeko asmoz.

Horretarako:

- Gure aktibo nagusia talde profesionala da: kualifikatua, konprometitua, bokaziozkoa eta etengabe trebatzen dena.
- Eskaintza zabala eta diziplina anitzekoa da, eta arreta, pertsonalizatua.
- Metodologia eguneratua dugu, eta ikasleen behar orokorretara egokituta dago.
- Beharrei begirako baliabideak ditugu.
- Eskuratu daitekeen zerbitzu bat da, ikuspuntu ekonomiko eta fisikotik.
- Kudeaketa-sistema bikaintasunari begira dago.

Ikuspegia

Erreferentzia izan nahi dugu EAEn, nola irakaskuntzan hala musika hedatzeko lanean: alde batetik, trebakuntza bikaina ematen zaie ikasleei, bai musikari amateurrak izateko, bai profesionalak izateko; eta beste aldetik, musikari eta pertsona gogobeteak hezten eta trebatzen ditugu, lotura positiboa izan dezaten bizitzan zehar musikarekin eta musika-jardunarekin.

Hori guztia inkesta eta adierazleekin neurtuko dugu. Hau aztertuko dute:

- Pertsonen gogobetetze maila.
- Gutxienez, 650 ikasle daudela bermatzea.
- Durangaldeko kultur bizitza aberastea eta hartan parte hartzea.
- Marka-irudi positiboa proiektatzea erabiltzaileen artean, udalerrian eta Bizkaiko Lurralde Historikoan.
- Instalazioen kudeaketan irisgarritasuna, jasangarritasuna eta eraginkortasuna ziurtatzen dituzten ziurtagiriak lortzea.

Balioak

Pertsonen ematen diote zentzua erakundearen existentziari, eta gure lanaren erdigunea dira, bai zentroko ikasleak (izan daitezkeenak edo badirenak), bai langileak. Horregatik, balio hauek ditugu gidari:

- Errespetua.
- Talde-lanean oinarritutako proiektu komun baten parte izateak dakarren zentzua.
- Enpatia eta elkartasuna.
- Motibazioa eta anbizioa, zentroko pertsonen ekimenak, sorkuntza eta berrikuntza sortzeko funtsezko elementu gisa.
- Etengabe hobetzeko eta berrikuntzak egiteko espiritua, eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna une oro, eraginkortasuna bilatu bitartean.
- Zerbitzu publiko izateko bokazioa.
- Lankidetzan aritzea sektore publiko osoarekin, ikastetxeekin, musika-irakaskuntzako zentroekin, elkarteekin eta erakundeekin.
- Gardentasuna.
- Ekitatea eta justizia.

3.2. Zentroaren helburu orokorrak

Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolak helburu orokor hauek ditu:

1. Musikan trebatzeko eskari sozialari erantzutea, Durangoko eta inguruko bizi-kalitatea hobetzeko asmoarekin.
2. Kalitate oneko irakaskuntza arautua eta ez-arautua eskaintzea, banaka eta taldean.
3. Musika-egitatea modu mailakatuan ulertzeko alderdi teoriko egokiak irakastea.
4. Eskaintza hori ikasleei helaraztea adinaren arabera, eta lehentasuna ematea haur eta gazteen hezkuntzari.
5. Zentroaren eta gizartearen arteko interakzioa sustatzea.
6. Programazio-eskaintza zabala garatzea, eta ikasleek zentroko jardueretan modu aktiboan parte hartu dezaten bultzatzea.
7. Kontzertuetara joateko eta musika-estilo guztiak entzuteko atsegina indartzea, eta espiritu kritikoa garatzea.
8. Irakaskuntza-teknikak hobetu daitezen sustatzea, irakasleek hobera eginez beti.
9. Irakaskuntza ez-arautuaren programazioa pertsona bakoitzaren interes, arduraldi eta ikaskuntza-erritmora egokitzea, eta irakaskuntza mota horri probetxu ateratzen zaiola zaintzea.
10. Musika-estiloen askotariko eskaintza proposatzea, adin guztietako pertsonentzat.
11. Orientabideak eta trebakuntza sakonagoa ematea gaitasunagatik eta interesagatik ikasketa arautuetara sartzeko baldintzak eta borondatea dituzten ikasleei.
12. Tokiko eta eskualdeko musika-kultura bildu, sistematizatu eta hedatzea.
13. Musika-irakaskuntza eskaintzen duten Euskal Herriko, Espainiako eta Europako zentroekin koordinatzea, irakaskuntza-metodologiak eta antolakuntza-ereduak trukatzeko, jarduerak elkarrekin programatzeko, eta ikasleen eta irakasleen arteko interakzioa indartzeko.
14. Eragin positiboa edukitzea inguruko musika-kulturan, ikasleak trebatuz eta, baita zuzenean musika gizartean hedatuz ere.
15. Ikastetxeekin harremanetan egotea, musikara gerturatu daitezen sustatzeko.

3.3. Helburu estrategikoak:

Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolak helburu estrategiko hauek ditu:

1. Kalitate oneko musika-hezkuntza eta -trebakuntza ematea.
2. Marka-irudi positiboa proiektatzea ikasleen eta familien artean, udalerrian eta Euskal Autonomia Erkidegoan.
3. Erakunde autonomoa efizientziaz kudeatzea; gardena, eskuragarria eta jasangarria izatea; eta Durangorekin konprometituta egotea.
4. Ikasleak eta, hala badagokio, familiak erabat gogobeterik egotea.
5. Bartolome Ertzillako langileak motibatuta, gogobeterik eta harro egotea.

4. Zentroak eskaintzen dituen zerbitzuak

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean oinarrituta, zentroak web-orrian du jasota zerbitzuen aukera. Zentroak eskaintzen dituen zerbitzu hauei buruzko informazio gehiago dago bertan, baita erabiltzaileekin hartutako kalitate-konpromisoei buruzkoa ere:

4.1. Informazioa, orientabideak eta aholkularitza

Informazio argia eta xehea zentroko hezkuntza-eskaintzari, ikaskuntza-prozesuaren iraupenari, ordaintzeko erei, dirulaguntzei, bekei eta matrikulak izapidetzeari buruz, tratu hurbila eta atsegina emanez.

4.2. Musika Eskola

Ikasleak 4 urtetik aurrera heztea musikari amateurak izateko eta/edo etorkizunean profesionalizatzeko, klase praktikoak eta pertsonalizatuak emanez ebaluazio jarraituarekin.

4.3. Gradu profesionaleko Kontserbatorioa

Ikasleak 12 urtetik aurrera heztea musikari profesionalak izateko, klase praktikoak eta pertsonalizatuak emanez ebaluazio jarraituarekin.

4.4. Ingurunea musikarekin dinamizatzea, jarduerak eta kontzertuek dakarten eraginaren bidez

Musika-kultura eta -hezkuntza sustatzea zentroko ikasle-irakasleen kontzertu eta emanaldiekin, zentroak berak programatuta edo beste hezkuntza- eta/edo musika-entitate batzuekin jarduerak antolatuz.

4.5. Musika-tresnen espezializazioak eta irakasgaiak

Musika-tresnen espezializazioak:

- Musika-tresna polifonikoen adarra: Pianoa
- Adar instrumental sinfonikoa:
 - Zurezko haizeak: zeharkako txirula, oboea, klarineta, saxofoia
 - Metalezko haizeak: tronpeta, tronboia
 - Hariak: biolina, biola, biolontxelo, kontrabaxua
- Sustrai tradizionaleko musika-tresnen adarra: txistua
- Askotariko joeren adarra: gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, bateria, jazzerako pianoa, jazzerako saxoa
- Perkusioa
- Kantua eta abesbatza

Irakasgaiak

- Musika eta mugimendua
- Musika-hizkuntza
- Musika-informatika
- Ganbera-musika
- Talde instrumentalak
- Musika modernoa: konboak
- Orkestra
- Banda
- Abesbatza
- Harmonia klasikoa eta modernoa

Helduentzako eskaintza

- Musika-hitzaldiak
- Tailerrak

4.6. Beste zerbitzu batzuk

Zerbitzu publiko izateko gure bokazioa dela bide, musika-ikaskuntza errazten duten baliabideak jartzen ditugu ikasleen eskura. Ildo horretan, ikasgelak eta musika-tresnak uzteko aukera dago, erabilgarritasunaren arabera eta zentroko barne-araudia beteta.

4.7. Zerbitzuen aukerako beste eduki batzuk

Zerbitzuen aukeran, eskaintzen diren zerbitzuak ez ezik honako hau ere aditzera ematen da:

- Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.
- Herritarrek parte hartu eta lankidetzan jarduteko moduak.
- Araudi erregulatzailerak.
- Helbideak eta harremanetarako bideak.

5. Irakaskuntzaren antolamendua, prestakuntza-plana eta arduraldiak

Dokumentu honetako 2.2 puntuan adierazi den moduan, zentroak bi musika-irakaskuntza mota eskaintzen ditu: ez-arautua, Musika Eskolaren baitan; eta arautua, gradu profesionaleko Kontserbatorioaren barruan. Instalazioak, irakasleak eta baliabideak berberak dira bi irakaskuntza motetan.

Bietako ikasleak talde berberetan aritu daitezke, gaitasun mailak horretarako aukera ematen baldin badie.

Haurren, helduen eta gazteen prestakuntza-plana argiago ikusten da eranskinetan.

Zentroak musika-ikaskuntzako bi ildo eskaintzen ditu: musika-tresna sinfonikoena (klasikoa), eta musika modernoarena, bai eta sustrai tradizionalak ere (txistua). Bi ildoak irakaskuntza ez-arautuan eta arautuan (gradu profesionaleko Kontserbatorioa) ezarrita daude.

5.1. Irakasleak eta ikasleak

Bartolome Ertzilla erakunde autonomoko irakasle multzoa 25 lagunekoko plantilla organiko bat da, eta multzo horri zentroko funtzionamendu-lanetarako behar diren irakasleak batu behar zaizkie.

Haiez gain, langile bat aritzen da administrazio-kontuetan, eta beste bat atezaintzan.

Ikasle kopurua 700 inguru da Musika Eskolan, eta 50 lagun Kontserbatorioan, gutxi gorabehera.

Datu horiek guztiak lagungarri zaizkio zuzendaritza-taldeari, ikasturte bakoitzeko toki-eskaintza egiteko eta musika-tresnen prestakuntzarako behar diren langileak bermatzeko.

5.2. Musika Eskola

Musika Eskolan, irakaskuntza antolatuta dago Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuak bere 44. artikuluan zehazturiko lau maila jarraituz:

- 1. maila edo kontaktukoa.
- 2. maila edo espezialitate-hastapena.
- 3. maila edo espezialitate-finkapena.
- 4. maila edo espezialitate-hobekuntza.

Antolamendu horretatik at, eta aipatu dekretuko 67. artikuluan jasota dagoen autonomiaren baitan, Eskolak beste irakasgai eta tailer batzuk ere eskaintzen ditu.

Kasu guztietan, ikasleen adinarekin eta beharrekin bat datozen ordutegiak eskaintzen saiatuko da Eskola.

Era berean, taldeen osaera zainduko da kideen adina, interesak eta arduraldia kontuan hartuta, matrikulazio-aukerak zein diren.

Zentroan talde hauek daude, bakoitza bere arduraldiarekin:

- Orkestrak (txiki, 75 minutu; gazte, 2 ordu)
- Bandak (txiki, 1 ordu; gazte, 90 minutu)
- Konboak (45 minutu)
- Abesbatzak (kantu korala, 45 minutu; abesbatza, 1 ordu; laukotea, 2 ordu; haur abesbatza 45 minutu)
- Bart Sax (90 minutu)
- Gehi zazpi (2 ordu)
- Ganbera-taldeak (1 ordu)
- Txistulari-taldeak (45 minutu)
- Saxofoi-taldea (90 minutu)
- Txirula-taldea (90 minutu)
- Klarinete-taldea (30 minutu)
- Metal-taldea (1 ordu)
- Biolin-taldeak (2.1, 30 minutu; 2.2 eta 2.3, 45 minutu)
- Biola-taldea (30 minutu)

Hezkuntza-eskaintzaren harira, haurrak daude alde batetik, eta helduak eta gazteak, bestetik. Helduak adinez nagusiak dira, eta gazteak, 14 urtetik 17 urtera artekoak. Norbere heldutasunaren arabera, Musika Hizkuntzako Sailak gazteak zer taldetan sartu erabakiko du.

5.2.1. Metodologia

Helburu orokorrak abiapuntutzat hartuta, eta ikasleen desio eta beharrei ahalik eta erantzunik onena emateko, aniztasun handia dago hezkuntza-jardunbideetan, eta hori balio bat da zentroko hezkuntza arloko eskaintzaren baitan.

Irakasleen irakaskuntza:

- Aktiboa da: ikasleak prozesuaren erdigunean daude, eta ez dute informazio jasotzen soilik; aitzitik, beren ezagutza sortu ere egiten dute.
- Banan-banakoa da: pertsona bakoitzaren interesetan, desioetan eta gaitasunetan oinarritzen da.
- Sozializatzailea eta kooperatiboa da: talde-lana egiten da eta taldeetan parte hartzeko aukera dago, musika-tresna bakoitzaren aukerak kontuan hartuta. Hala, balioa ematen zaie pertsonen arteko harremanei. Horrez gain, ikasitakoa jendearentzat irekiak diren entzunaldietan eta kontzertuetan erakusten da.
- Sormenezkoa da: espontaneotasuna garatu nahi da, inprobisazioa, gaitasun espresiboa eta originaltasuna landuz, eremu guztietan.
- Dibertigarria da: entretenigarria eta atsegina da, jolasak eta beste jarduera ludiko batzuk erabiltzen baitira.
- Intuitiboa da: imitatuz lan egiten da, eta irakasleekin batera joz. Hartara, zentzumenekin bilatzen da azkenean adimenera iritsiko dena.
- Konprometitua da: inplikazioa bilatzen da autonomia pertsonala garatzeko, ikasteko ohiturak eta teknikak lortzeko eta ikasten ikasteko. Gainera, familien partaidetza sustatzen da.
- Berritzailea da: irakasleak trebatzen ari dira etengabe, eta jarduera zein teknologiarik egokienak baliatzen dira helburu bakoitzerako.
- Belaunaldiartekoa da: adin desberdineko pertsonak integratu eta lankidetzan aritzea nahi da.
- Hezkidetzan oinarritzen da: emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna du helburu.

5.2.2. Ebaluazioa

Ebaluazioa jarraitua da. Irakasleek asteroko erregistro bat egingo dute ikasleen ibilbidea balioetsi eta, hartara, dagokion kalifikazioa eman ahal izateko.

Gradu profesionaleko Kontserbatorioan bezala, bi ebaluazio egiten dira ikasturte bakoitzean, lau hilez behin, eta aste bana gordetzen da urtarril edo otsailean eta maiatz edo ekainean, ebaluazio-jarduerak egiteko. Bi aste horietan ez dira ohiko klaseak ematen, Musika Eskolako 1. mailakoak izan ezik. Izan ere, ikasle eta irakasle guztiak entzunaldietan eta ebaluazio-probetan murgilduta egoten dira. Prozedura hori zentroko ebaluazio-planean garatuta dago.

5.2.3. 1. maila

4 urtetik 7 urtera arteko ikasleentzat. Edonola ere, familiarekin adosten bada eta justifikatuta baldin badago, ikasleak ikasturte bat gehiago egon ahalko dira maila honetan, Dekretuko 44.2 artikuluan jasota dagoen moduan.

Maila honetan, izaeraren garapen harmonikoa indartuko da irakasleekiko eta taldekideekiko interakzioaren bidez, soinu- eta mugimendu-jarduerak eginez.

1. mailaren helburu orokorrak zentroko ikasketa-proiektuan jasota daude, eta Dekretuan maila horretarako jasota dagoen gaitasun maila lortzeko diseinatu dira.

1. mailan, irakasgai hauek daude:

- **Musika eta mugimendua.**
4, 5 eta 6 urteko ikasleentzat. 4 eta 5 urteko ikasleek 30 minutuko saio bat izango dute astean, eta zortzi taldekide izango dira gehienez. 6 urteko ikasleek, berriz, 45 minutuko bi saio izango dituzte astean, eta 10 taldekide izango dira gehienez.

- **Musika-tresnekin hasi aurreko hastapenak.**
7 urteko ikasleentzat. 30 minutuko saio bat izango dute astean, bost eta zazpi ikasle arteko taldetan.
- **Musika-hizkuntzaren hastapenak.**
7 urteko ikasleentzat. 45 minutuko bi saio izango dituzte astean, eta 12 taldekide izango dira gehienez.
- **Haur abesbatza.**
7 urtetik gorako ikasleentzat. 7 urtekoak 1. mailan egongo dira, eta 8 urtetik gorakoak 2. mailan. Talde honetan soilik parte hartu nahi duten ikasleek ez dute Musika Hizkuntza edo Musika-Hizkuntzaren Hastapena irakasgaia egin beharko.

5.2.4. 2. maila

Musikarekin hasten ari den 8 urtetik gorako edonorentzat, adin-mugarik gabe, edo zentroko 1. mailatik datozenentzat.

Maila honetan, musika-tresna eta kantua lantzen dira beste ezein elementu espresibo baten gisara eta norbere izaera eta sentsibiltatea garatzeko elementu baten gisara.

2. mailaren helburu orokorrak zentroko ikasketa-proiektuan jasota daude, eta Dekretuan maila horretarako jasota dagoen gaitasun maila lortzeko diseinatu dira.

2. mailan matrikulatzeko eskatu duen norbaitek gaitasun maila handiagoa badu, 3. edo 4. mailan matrikulatuko da, dagokionaren arabera.

2. mailan, irakasgai hauek daude:

- **Musika-tresna eta bakarkako kantua.**
Oro har, ikasleen arduraldia 30 minutu izango da astean, eta 45 minutu ere izan daitezke egoera jakin batzuetan soilik, lehentasun-ordena honi jarraikiz:
 1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonak. Batzorde Pedagogikoak aztertuko du.
 2. Errefortzua duten ikasleak.
 3. Talderen batean diharduten 2. eta 3. mailako ikasleak. Baldin eta eskola-orduak badaude, klaseari probetxu ateratzen bazaio eta pedagogikoki justifikatuta badago.
 4. Talderen batean parte hartzen ez duten 2. eta 3. mailako ikasleak. Baldin eta eskola-orduak badaude, klaseari probetxu ateratzen bazaio eta pedagogikoki justifikatuta badago.

Haurren ibilbidea: maila hau lau modulutan egituratuta dago (2.1, 2.2, 2.3 eta 2.4), eta lau eta sei ikasturte artean beharko dira osatzeko.

Helduen eta gazteen ibilbidea: musika-tresnekin edo kantuarekin has daitezke musika-hizkuntzako lehen ikasturtea egin ondoren. Hiru ikasturte izango dituzte musika-tresnaren edo kantuari ikaskuntzarako, eta, amaitutakoan, jarraitzeko aukera urte luzatu ahalko da, baldin eta eskola-orduak badaude eta klaseari probetxu ateratzen bazaio.

Bakarkako kantuari espezialitatean matrikulatzeko, 16 urteak beteta eduki behar dira ahots zurien kasuan, eta 18 urteak gainerakoen kasuan, edo ahotsa aldatuta edukitzea. Beraz, 20 urtetik beherakoek elkarriketa bat egin beharko dute hori egiaztatzeko.

- **Musika-hizkuntza.**
45 minutuko bi saio izango dituzte astean, eta 12 taldekide izango dira gehienez. Irakasgai hau eta musika-tresnaren edo kantuari espezializazioa osagarriak dira. Dena den, espezialitaterik gabe egin daiteke salbuespenetan.

Haurren ibilbidea: lau ikasturte egin behar dira derrigor (2.1etik 2.4ra).

Helduen eta gazteen ibilbidea: hiru ikasturte egin behar dira derrigor.

- **Kantu korala eta abesbatza.**
Kantu korala nahitaezkoa izango da 2.3ko haurrentzat. Eta 2.4 modulutik aurrera, ikasle guztiek kantu korala edo abesbatza egin ahalko dute talde gisa edo espezialitate gisa, nahi izanez gero. 2.3an, 45 minutuko saio bat izango dute astean, eta 25 taldekide izango dira gehienez.
- **Taldeak.**
Nahikoa gaitasun lortzen dutenean, ikasleek Eskolako talde instrumentaletan parte hartuko dute. Taldekide kopurua eta arduraldia desberdinak izango dira talde bakoitzean. Matrikulazioa bide orokorretik egingo da, eskaintzen diren taldeetako batean matrikulatuz ikasturtez ikasturte. Hala ere, antolakuntza-arrazoiak direla bide, ikasturte osoa baino gutxiago irauten duten proiektuetan parte hartuz matrikulatzeko aukera egongo da, Batzorde Pedagogikoak erabakitzen duen kasuetan.
- **Musika-informatika.**
45 minutuko saio bat izango dute astean, eta bost taldekide izango dira gehienez. 2.4ko haurrek nahitaez egin behar dute, eta hautazkoa izango da gainerako ikasleentzat.
- **Ahots-teknika.**
90 minutuko saio bat izango dute astean, eta 10 taldekide izango dira gehienez. Bakarkako kantuko eta abesbatzako ikasleek izango dute lehentasuna, trebakuntza osagarri gisa.
- **Irakasgai osagarriak.**
Maila honetan, prestakuntza aberastu dezaketen irakasgai osagarriak programatu ahalko dira, ikasleen behar eta desioei erantzunez.

5.2.5. 3. maila

Aurretiko ezagutzak dituen eta musikaren jardunean sakondu nahi duen edonorentzat.

3. mailaren helburu orokorrak zentroko ikasketa-proiektuan jasota daude, eta Dekretuan maila horretarako jasota dagoen gaitasun maila lortzeko diseinatu dira. Xedea autonomia instrumentala erdiestea da, zentroko talde batean autonomiaz parte hartu ahal izateko.

Lau modulutan antolatuta dago (3.1, 3.2, 3.3 eta 3.4).

Bi ibilbide daude:

- **A ibilbidea:** ikasleek 30 minutuko klasea izango dute bakarka, musika-tresnarekin edo bakarkako kantuarekin. Talde batean parte hartu ahal izango dute. Beste irakasgai batzuk ere egin ahalko dituzte.
- **B ibilbidea:** ikasleek 45 minutuko klasea izango dute elkarrekin, eta hautazko irakasgaiak ere egin ditzakete.
- **C ibilbidea:** ikasleek 3.3 eta 3.4 moduluetan, gaitasun mailak aukera ematen badie, zentroko talderen batean bakarrik parte hartu dezakete.

Maila honetan, prestakuntza aberastu dezaketen irakasgai osagarriak programatu ahalko dira, ikasleen behar eta desioei erantzunez.

5.2.6. 4. maila

Gaitasun maila interesak, arduraldiak eta trebetasunak zehaztuko dute, besterik ez.

4. mailaren helburu orokorrak zentroko ikasketa-proiektuan jasota daude, eta Dekretuan maila horretarako jasota dagoen gaitasun maila lortzeko diseinatu dira. Xedea da maila teknikoari eta musikarekiko kontaktuari eustea, eta zentroko talde batean egonkortasunez parte hartzea.

Lau modulutan antolatuta dago (4.1, 4.2, 4.3 eta 4.4).

Bi ibilbide daude:

- **A ibilbidea:** ikasleek 30 minutuko klasea izango dute bakarka, musika-tresnarekin edo bakarkako kantuarekin. Talde batean parte hartuko dute. Hautazko beste irakasgai batzuk ere egin ahalko dituzte.
- **B ibilbidea:** ikasleek zentroko talde batean edo gehiagotan parte hartuko dute, eta hautazko beste irakasgai batzuk egin ahalko dituzte.

5.2.7. Eskaintza helduentzat eta gazteentzat

Zentroaren helburu orokorrak direla eta, beste ikastaro eta jarduera batzuk ere eskaintzen dira. Batzuek jarraitutasuna dute eta beste batzuk noizean behin egiten dira.

Ikasleren bat irakaskuntza mailaren batean jada ez badago eta irakaskuntza-eskaintza horretan modu jarraituan parte hartzen badu, 2. mailakotzat hartuko da.

- Musika-hitzaldiak.
Hitzaldiek musika hedatzea dute helburu. Ikasturtean zehar antolatzen dira, bakoitza bere edukiarekin.
90 minutuko saio bat izango dute hamabostetik behin, eta 25 laguneko taldeak izango dira gehienez.
- Konposizio-tailerra.
2. gaitasun maila egiaztatzen duten ikasleentzat.
Ordubeteko saio bat izango dute astean, eta bost taldekide izango dira gehienez.
- Jazz-trebakuntza.
3. gaitasun maila egiaztatzen duten ikasleentzat.
30 minutuko bakarkako saio bat izango dute astean, eta ordubetera arte ere luzatu daiteke.

5.3. Gradu profesionaleko Kontserbatorioa

Gradu profesionaleko Kontserbatorioan, irakaskuntza sei mailatan antolatuta dago, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuan zehaztuta datorren bezala. Horren bidez ezartzen da musika-ikasketa profesionalen curriculum eta ikasketa horietan sartzeko probak.

5.3.1. Metodologia

Printzipio metodologikoak curriculum ireki batean oinarrituta daude. Erantzukizunik handiena irakasleek dute, eta, horretarako, irakasleen arteko lankidetzeta eta komunikazioa garrantzitsuak dira, prozesu osoa zentroko ikasketa-proiektu eguneratu batean jasota egotea bezainbeste.

Irakaskuntzak printzipio metodologiko hauek ditu oinarri:

- Autonomia ikaskuntzan. Helburua da ikasleak prestatzea beren ikaskuntza sistematikoarekin jarraitzeko, irakasleen laguntza ez dutenerako. Era horretan, autohezkuntza errealizazio pertsonal eta sozialaren osagai bat izango da.
- Metodo aktiboa eta parte-hartzailea. Ikasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren protagonista gisa kokatzea da helburua, modu aktiboan, eta ikasleen arteko aniztasuna kontuan hartuta. Horretarako, ekimena, ikerketa, partaidetza eta esperimentazioa suspertuko dira, nork bere sormena garatzeko.
- Ikaskuntza eraikitzailea eta esanguratsua. Edukiak modu argian, sekuentziatuan eta koherentean aurkezten dira. Halaber, jada barneratu dituzten edukiarekin eta beste arlo batzuetako edukiarekin erlazionatzen dira, eta ikasleen musika-garapenera egokitzen.
- Ikaskuntzaren metodo funtzionala eta diziplinartekoa. Barneratutako ezagutza modu praktikoan aplikatzen da, eta alor bereko zein irakasgai desberdinetako edukiak erlazionatu egiten dira.

- Bakarkako irakaskuntza eta ikasleen aniztasunera egokitua. Programazioa irekia eta malgua da, ikasleen ikaskuntza-erritmoetara egokituta, baina zentroko ikasketa-proiektuan finkatuta dauden helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak ahaztu gabe.
- Ahaleginaren eta konstantziaren balioan hezte. Lan pertsonalerako ohiturak garatu nahi dira, eta ikasteko jokabide eraginkorrak lortu, autokonfiantza sustatzeko. Bestalde, talde-lanerako ohiturak garatuz, elkartasuna eta elkarren arteko lankidetzak bultzatzen dira.
- Prestakuntza integrala. Hezkuntza-lana ez da ezagutzen transmisio hutsera mugatzen. Aitzitik, alderdi humano, zientifiko eta etikoetan trebatzen da; alegia, ikasleak hezten dira gizarte barneko bizikidetzak harmoniko batean bizi ahal izateko. Alde horretatik, irakasleek balio unibertsaletan oinarritutako trebakuntza eskainiko dute: duintasuna, askatasuna, berdintasuna, tolerantzia eta gatazkak elkarriketaren bitartez konpontzea.

5.3.2. Ebaluazioa

Ebaluazioa **jarraitua** da, zentroko espezialitate bakoitzaren zentroko ikasketa-proiektuan finkatutako hezkuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak aintzakotzat hartuta. Hori guztia ikasgelako programazio didaktikoetan islatuko da. Ebaluazioa jarraitua izanik, ikasleek aurrerapenak egiaztatu ahal dira. Horretarako, irakasleek dagozkion **ebaluazio-tresnak** jarri behar dituzte martxan.

Ebaluazioa **prestakuntzari** begirakoa izango da; hau da, jaso duten informazioarekin, ikasleek hobetzeko konpromisoa hartuko dute.

Bestalde, ikasleen **autoebaluazioa** ere sustatuko da, eta horrek autonomia eta ekimen pertsonala garatzeko gaitasuna emango dio.

Ebaluazioa **integratzailea** denez gero, ikasleen irakasle guztiek egingo dute, tutorea buru. Ebaluazio-prozesuan zehar, modu koordinatuan lan egingo dute.

Bestalde, ebaluazio-prozesua **globalizatzailea** izan dadin, irakaskuntza-prozesua bera eta irakasleen jardunbidea ere ebaluatuko dira, irakasleek hobekuntzak edo aldaerak planteatu ditzaten.

Irakasleek asteroko erregistro bat egingo dute ikasleen ibilbidea balioetsi eta, hartara, dagokion kalifikazioa eman ahal izateko.

Musika Eskolan bezala, bi ebaluazio egiten dira ikasturte bakoitzean, lau hilez behin, eta aste bana gordetzen da urtaril edo otsailean eta maiatz edo ekainean, ebaluazio-jarduerak egiteko. Bi aste horietan ez dira ohiko klaseak ematen, eta ikasle eta irakasle guztiak entzunaldietan eta ebaluazio-probetan murgilduta egoten dira. Horrez gain, bi aurre-ebaluazio egiten dira ikasturte bakoitzean: lehena, azaroan, eta bigarrena, lau hilez behingo ebaluazioa baino sei aste lehenago. Errefortzua duten Musika Eskola ikasleei ere aplikatuko zaie. Prozedura hori zentroko ebaluazio-planeari garatuta dago.

Irakasleek beren arduraldia, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aztertu eta aitortuak izateko eskubidea dute, eta, eskubide hori bermatzeko, Kontserbatorioak aditzera emango du, espezialitateen programazio bakoitzean, zer helburu, eduki eta ebaluazio-irizpide dauden, eta gutxienezko zer eduki eskatzen diren kalifikazio positiboa lortzeko.

5.3.3. Hezkuntza-eskaintza

Kontserbatorioko hezkuntza-eskaintza eskuragarri dago dokumentu honetako 4.5 puntuan ageri diren espezialitate guztietarako.

Hezkuntza-eskaintza diseinatzeko orduan, arduraz jokatu behar dela eta mugak gogoan eduki behar direla kontuan hartzen da, dokumentu honetako 1. puntuan esaten den bezala.

5.3.3.1. Kontserbatorioko taldeak

Talde instrumentalak zentroaren egituraren oinarria dira, eta osiera orekatua izateak funtsezko parametro bat izan behar du hezkuntza-eskaintza garatzen denean.

Kontserbatorioan diharduten ikasleek gain, amaitu duten ikasleei adre ematen zaie taldeekin bat egin eta musikaz gozatzen jarraitu dezaten.

Kontserbatorioko talde nagusiak hauek dira:

- Hari-orkestra txikia
- Hari-orkestra gaztea
- Banda txikia
- Banda gaztea
- *Big Band* (Bart Sax)
- Konboak
- Txelo-taldea (Gehi zazpi)
- Flauta-taldea
- Metal-taldea
- Saxo-taldea
- Txistulari-taldea
- Ganberako beste talde batzuk
- Abesbatza

Orobat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sustaturiko musika-taldeetan parte hartzen dute ikasleek; esate baterako, Euskadiko Ikasleen Orkestran (EIO) eta Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra (EIJÖ).

5.3.3.2. Irakasgaien taulak eta prestakuntza-ibilbideak

Jarraian, gradu profesionaleko Bartolome Ertzilla Kontserbatorioko irakaskuntzaren egitura jaso da, espezialitatearen arabera: Taula bakoitzean, irakaskai komunak, espezialitatekoak, oinarritzkoak diren hautazkoak eta hautazko osagarriak daude, eskola-orduekin batera.

Hautazko irakaskai osagarriak ikasleen prestakuntza-ibilbidearen arabera aukeratzen dira. **Bi ibilbide** daude:

- **A.** Interpretazio-ibilbidea, goi mailako musika-ikasketekin jarraitu nahi dutenentzat (interpretazio-gradua, jazz-interpretazioa edo pedagogia).
- **B.** Interpretazio-ibilbidea, irakaskuntza profesionala amaitu eta goi mailako musika-ikasketekin jarraitu nahi ez dutenentzat.

PIANOAREN espezialitatea

A ibilbideko ikasleentzat, hautazko irakaskai osagarria musika-tresna nagusiaren erreperitorioa izango da. B ibilbideko ikasleek irakaskai osagarri hauen artean aukeratu dezakete: informatika, inprobisazioa edo abesbatza.

Musika-tresna osagarria zentroak esleituko du, erabilgarritasuna kontuan hartuta.

IRAKASGAIK		IKASTURTEA Orduak/astero					
		1.	2.	3.	4.	5.	6.
KOMUNAK	Tresna	1	1	1	1	1	1
	Lengoaia Musikala	2	2				
	Armonia			2	2		
ESPEZIALITATEA	Ganbera					1	1
	Abesbatza	1	1	1	1		
	Piano Laguntzailea	0,5	0,5	0,5	0,5		
	Tresna Osagarria	0,5	0,5	0,5	0,5		
	Historia (Hautazko Oinarritzkoa)					2	2
	Analisia (Hautazko Oinarritzkoa)					2	2
	Hautazko Osagarria					0,5	0,5
	ORDU GUZTIK	5	5	5	5	6,5	6,5

HAIZE-INSTRUMENTUEN espezialitatea

A ibilbideko ikasleentzat, hautazko irakasgai osagarria musika-tresna nagusiaren erreperitorioa izango da. B ibilbideko ikasleek irakasgai osagarri hauen artean aukeratu dezakete: informatika, inprobisazioa edo abesbatza.

IRAKASGAIK		IKASTURTEA Orduak/astero					
		1.	2.	3.	4.	5.	6.
KOMUNAK	Tresna	1	1	1	1	1	1
	Lengoaia Musikala	2	2				
	Armonia			2	2		
ESPEZIALITEA	Ganbera			1	1		
	Orkestra						
	Banda/Taldea	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5
	Piano Osagarria	0,5	0,5	0,5	0,5		
	Erreperitorio Pianistarekin	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
	Historia (Hautazko Oinarrizkoa)					2	2
	Analisia (Hautazko Oinarrizkoa)					2	2
	Hautazko Osagarria					0,5	0,5
	ORDU GUZTIK	5,5	5,5	6,5	6,5	7,5	7,5

HARI IGURTZIZKO INSTRUMENTUEN espezialitatea

A ibilbideko ikasleentzat, hautazko irakasgai osagarria musika-tresna nagusiaren erreperitorioa izango da. B ibilbideko ikasleek irakasgai osagarri hauen artean aukeratu dezakete: informatika, inprobisazioa edo abesbatza.

IRAKASGAIK		IKASTURTEA Orduak/astero					
		1.	2.	3.	4.	5.	6.
KOMUNAK	Tresna	1	1	1	1	1	1
	Lengoaia Musikala	2	2				
	Armonia			2	2		
ESPEZIALITEA	Ganbera			1	1		
	Orkestra	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5
	Banda/Taldea						
	Piano Osagarria	0,5	0,5	0,5	0,5		
	Erreperitorio Pianistarekin	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
	Historia (Hautazko Oinarrizkoa)					2	2
	Analisia (Hautazko Oinarrizkoa)					2	2
	Hautazko Osagarria					0,5	0,5
	ORDU GUZTIK	5,5	5,5	6,5	6,5	7,5	7,5

KANTUAREN espezialitatea

A ibilbideko ikasleentzat, hautazko irakasgai osagarria musika-tresna nagusiaren erreperitorioa izango da. B ibilbideko ikasleek irakasgai osagarri hauen artean aukeratu dezakete: informatika, inprobisazioa edo abesbatza.

Kantuari aplikatutako hizkuntza italiara (1. eta 2. mailak), alemana (3. eta 4. mailak) eta frantsesa (5. eta 6. mailak) izango da.

IRAKASGAIK		IKASTURTEA Orduak/astero					
		1.	2.	3.	4.	5.	6.
KOMUNAK	Tresna	1	1	1	1	1	1
	Lengoaia Musikala	2	2				
	Armonia			2	2		
ESPEZIALITATEA	Ganbera			1	1		
	Abesbatza	2	2	2	2		
	Kantuari aplikatutako hizkuntza	1	1	1	1	1	1
	Piano Osagarria	0,5	0,5	0,5	0,5		
	Errepertorio Pianistarekin	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
	Historia (Hautazko Oinarrizkoa)					2	2
	Analisia (Hautazko Oinarrizkoa)					2	2
	Hautazko Osagarria					0,5	0,5
	ORDU GUZTIK	7	7	8	8	7	7

MUSIKA MODERNOAREN espezialitatea

Musika modernoko ikasleentzat, curriculum egokitu egin da haien prestakuntza espezifikoarekin bat datozen irakasgaiekin eta hautazkoekin.

Espezialitate polifonikoetan, musika-tresna osagarria landuko dute, eta espezialitate melodikoetan, piano osagarria.

Ikasleen beharrak eta kopurua zein diren, irakasgaien taula eta ordutegia egokitu ahal izango da, Batzorde Pedagogikoak adosten baldin badu eta zentroko zuzendaritzak onzat ematen badu.

IRAKASGAIK		IKASTURTEAK Orduak/astero					
		1.	2.	3.	4.	5.	6.
KOMUNAK	Tresna	1	1	1	1	1	1
	Lengoaia Musikala	2	2				
	Armonia			2	2		
ESPEZIALITATEA	Orkestra/Abesbatza						
	Konboa/Ganbera	1	1	1	1	1	1
	Piano edo Tresna Osagarria	0,5	0,5	0,5	0,5		
	Entzumen-hezkuntza			0,5	0,5		
	Jazzaren Historia					0,5	0,5
	Hautazkoa: Armonia Modernoa					0,5	0,5
	Historia (Hautazko Oinarrizkoa)					2	2
	Analisia (Hautazko Oinarrizkoa)					2	2
	ORDU GUZTIK	4,5	4,5	5	5	7	7

5.3.4. Ikasleek udalerriko jardueretan parte hartzea

Ikasleek eta irakasleek Durangoko Udalaren jardueretan parte hartzea bultzatuko da, bai banaka, bai taldeka. Eskerak zentroko zuzendaritzak kudeatuko ditu, eta lehentasuna dute erakunde autonomoko Gobernu Batzordeak presidentearen bidez egiten dituenak, bai eta udalerriko Kultura Sailak egiten dituenak ere. Kontserbatorioko eta Musika Eskolako ikasleek hartu ahaliko dute parte.

Noizean behingo eskaerak alde batera utzita, honako hauek ohiko jarduerak dira:

- San Faustoko kalejira

- Olentzeroren kalejira (abenduen 24an)
- Errege Magoen kalejira (urtarrilaren 5ean)
- Inauterietako kalejira
- Bonbardaketa Eguna (martxoaren 31n)
- Euskal Jaiak (ekainaren lehen hamabostaldian)

5.4. Beste hezkuntza-eskaintza batzuk

Eskaintza honen hartzaileak Musika Eskolako ikasleak, Kontserbatoriokoak edo denak izan daitezke aldi berean, jardueraren arabera eta egokitasunaren arabera, adina eta maila aintzakotzat hartuta.

5.4.1. Jarduera osagarriak

Zentroan eskuarki egiten diren jardueraz gain, jarduera osagarriak ere antolatuko dira; adibidez, irteerak, trukeak beste zentro edo talde batzuekin, jendaurreko kontzertu eta entzunaldiak, kontzertu edo ikuskizunetara joatea, tailerretan edo *masterclass*etan parte hartzea, etab.

5.4.2. Emanaldi pedagogikoak

Ildo beretik, zentroak kontzertu eta emanaldi pedagogikoak eskainiko ditu, eta lehentasuna Durango eta Iurretako ikastetxeetako 5 eta 6 urteko haurrek izango dute. Jarduera horiek irakasleek egingo dituzte, zentroko ikasleekin edo haiek gabe.

Kontzertuen helburua pedagogikoa izango da, musikari buruzko interesa sustatu nahi baita adin horietarako propio sortutako ikuskizunekin. Eta beste helburua ikasleak erakartzea izango da: musika-jarduna bultzatuko da zentroa ezagutzera emanez ikasle horiei eta familiakoei.

5.4.3. Jardunaldiak, ikastaroak eta tailerrak

Iraunkorrak ez diren prestakuntza-jarduerak eskaini ahalko dira musikarekin edo jardun instrumentalarekin lotutako gai espezifikoetarako, eta jardunaldiak, ikastaroak edo tailerrak izan ahalko dira.

Eskaintza horren bitartez, gai zehatzetan sakontzeko eskaerari erantzuteko ahalegina egingo da, ikasleentzat oro har edo espezialitate baterako interesgarriak izateko.

6. Alderdi pedagogikoak eta antolakuntzakoak

6.1. Aniztasunari arreta

Aniztasunari begiratzea ikasle guztien behar bat da, berdin du Musika Eskolakoak edo Kontserbatoriokoak diren, eta erakunde osoaren behar bat ere bada.

Musika Eskolako ikasleek askotariko adin, interes, ezaugarri eta egoera pertsonalak izan ditzakete. Bakarkako saioak eta saio kolektiboak ongi erabiltzen badira eta probetxu ateratzen bazaie, hezkuntza-eskaintzaren antolaketa ziurtatu egiten du ikasleek beren beharren arabera arreta pertsonalizatua jasotzea. Aldi berean, inklusioa eta interakzioa sustatzen dira.

Musika Eskolak martxan jartzen dituen ohiko neurrietako bat ikasleen jarraipena egitea da, ikasturte berean beste maila batzuetara igo daitezkeen lehenbailehen detektatzeko. Neurri horren beste xede bat da errefortzurako ikasleak proposatzea, Kontserbatorioan sartzeko probari begira.

Ezohiko neurriak irakasle-taldeak erabakitzen ditu, eta, horien baitan, espezialitate batean baino gehiagotan matrikulatzeko aukera azter daiteke, ikastetxearen AJAn agertzen den moduan. Halaber, curriculum egokituak da testuingurua eta ikasleen ezaugarriak zein aukerak aintzat hartuta.

Gradu profesionaleko Kontserbatorioaren kasuan, sartzeko proba egin behar denez, ikasleen aniztasun maila Musika Eskolakoena baino txikiagoa da. Edozein kasutan ere, aniztasuna ageri da etapa horretan ere, askotarikoak direlako garapen ebolutiboaren erritmoak, sortzen hasten diren interes akademiko-profesionalak, itxaropenak eta bizi-proiektuak. Horrenbestez, aniztasuna hezkuntza-ekintzaren funtsezko oinarri bat da, baina beti edukitzen da kontuan zentroko ikasketa-proiektuan jasotako helburuak erdiesteko beharra.

Kontserbatorioak martxan jartzen dituen ohiko neurrietako bat ordutegi egokia eskaintzea da, etxetik zentroraino gehien desplazatu behar diren ikasleentzat. Orobat, ikasleen zaletasunei erantzute aldera, hautazko irakasgaien askotariko eskaintza egiten da azken mailetan, zentroaren aukerak kontuan hartuta, betiere.

Ezohiko neurriak irakasle-taldeak erabakitzen ditu, eta, horien baitan, maila batean (matrikula zabaltzea) edo espezialitate batean (eskakizunak betez gero) baino gehiagotan matrikulatzeko aukera azter daiteke, ikasleen gaitasun handiengatik justifikatzerik baldin badago. Beste neurri bat curriculum aldatzea izan daiteke, testuingurua eta ikasleen ezaugarriak zein aukerak ikusirik.

6.1.1. Hezkuntza-premia bereziak

Hezkuntza-premia bereziak dituztenen kasuan, egokitzat jotzen diren denbora- eta errefortzu-egokitzapenak egingo dira, zentroaren aukeren baitan, haien beharren arabera irakaskuntza eskaintze aldera. Egokitzapenak eskola-orduenak izan daitezke, edo, orobat, musika-hizkuntzaren eta musika-tresnaren irakaskuntza antolatzen den moduarena. Horrelakoetan, eskola-ordu gehiago edukitzeak ez du matrikularen prezioa igoaraziko.

Halaber, liberazioak egin ahalko dira irakasleen eskola-orduetan, trebakuntzarako eta material egokituak prestatzeko.

Zentroko irakasle-taldeak eta familien arteko koordinazioa ezinbestekoa izango da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak behar bezala artatzeko.

6.1.2. Irakaskuntza indartua

Irakaskuntza indartuaren hartzailak izango dira zentroaren ustez interesa duten, probetxu aterako dioten eta gaitasun egokiak dituzten ikasleak.

Irakaskuntza indartuaren helburu nagusia musika-ikasketa profesionalak egiteko probak prestatzea izango da.

6.1.3. Urrutiko irakaskuntza

Ikastetxeko AJAren 75.4.d) artikuluan agertutako arrazoiengatik ikasleak eskolara joaterik ez badu, urrutiko irakaskuntza eskatu ahal izango du. Ikasle horren irakasle-taldeak eskaera hori baloratuko du, eta, kasu bakoitza banaka aztertu ondoren, onartu egingo da edo ez.

6.2. Hezkidetzaren, genero-estereotipoak saihesteko

Hezkidetzaren xedea da bereizkeriarik eta despaketotasunik ez egotea sexua dela eta. Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna bilatzen eta sustatzen du. Hari horretatik, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa (LOE, 2006) inflexio-puntu bat izan zen aurreko araudiaren aldean. Lege horretan, emakumeen eta gizonen berdintasuna askotan aipatzen da eta erreferentzia asko daude, hezkidetzaren ikuspegitik garrantzitsuak direnak.

Berdintasuneko eskola-eredu batera iristeko aurrerabidea ez da hezkuntza-legeriaren erantzukizuna soilik, ordea: azken urteotan, hezkuntzarekin erlazioa duten esparruak erregulatzen dituzten arauak promulgatu dira, aurrerabidea errazteko neurriak dakartzatenak. Besteak beste, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko Legeak (martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa) bere II. tituluko II. kapituluaren finkatzen du hezkuntza-sistemak bere helburuen artean izango duela “ikasleak hezteko, oinarritzko eskubide eta askatasunak errespetatzeko” eta “emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarria eragotzen duten oztopoak ezabatzea eta batzuen zein besteen artean berdintasun osoa suspertzea”. Bestalde, hezkuntza berdintasun-baldintzetan jasotzeko eskubidea bermatzeko premiatzen da, eskola-eredu hezkidearekin lotutako jardueren bitartez. Besteak beste, hauek:

- Aukera-berdintasunaren printzipioa curriculum osoan eta hezkuntza-etapa guztietan txertatzea.
- Hezkuntza-prozesuan jokabide, eduki eta estereotipo sexistak ote dauden aztertzea.
- Sexuen arteko oreka sustatzea ikastetxeetako kontrol- eta gobernu-organismoetan.
- Emakumeek historian izandako zeregina aitortu eta erakusteko hezkuntza-neurriak finkatzea.

Gurea bezalako ikastetxeen kasuan, hezkidetzaren zeregina bi puntutan laburbildu dezakegu:

- Trebakuntza eta hezkuntza bi sexuentzako berdintasun-baldintzetan emateko planteamendu pedagogikoak aplikatzea, sexu bakoitzak jaso beharreko ikaskuntzei mugarik jarri gabe.
- Hezkidetzaren kontuan hartzea zentroan antolatzen diren jardueren guztietan, nola egonkorretan hala noizean behingoetan.

Orain, gure zentroaren ekintza eta konpromisorik garrantzitsuenak azalduko ditugu, hezkidetzarekin lotuta daudenak. Batzuk zeharkakoak dira, eta beste batzuk puntualak:

- Hezkidetzaren balioak kontuan hartzea sortzen den material pedagogiko guztian eta egiten diren jardueren pedagogiko guztietan. Musika balioetan hezteko bitarteko bat da, eta irakasle gisa eredu positiboak izatea giltzarri da genero-estereotipoen buru egiteko. Zentroko hezkuntza maila guztietan aplikagarri da hori, baina bereziki garrantzitsua da 1. mailan, 4 urtetik 7 urtera arteko ikasleekin. Izan ere, etapa goiztiar horietan rol jakin batzuk identifikatzen hasten dira, hezkidetzak ezabatu egin nahi dituenak etorkizuneko genero-bereizkeria saihesteko.
- Hizkuntza inklusiboa erabiltzea sortzen den material pedagogikoan eta egiten diren komunikazioetan (familiak, ikasleak, beste erakunde batzuk...), eta zentroaren dokumentu guztietan.
- Musika-tresna batzuk genero-rol jakin batekin ez identifikatzeko lan egitea. Ilde horretan, arreta berezia jartzen da musika-tresnekin hasi aurreko hastapenetara doazen 7 urteko ikasleekin, ez dezaten musika-tresnarik lotu sexu jakin batekin. Musikaren munduan pixkanaka aldatzen joan den zerbaite da, eta gero eta neurri handiagoan ikusten da orkestra-ataletan, baina ekin eta ekin jarraitu beharra dago.
- Ikusgaitasuna oso garrantzitsua da hezkidetzan, ereduak gazteen artean proiektatzen direlako. Hori dela eta, ezinbestekoa da genero-ikuspegia edukitzea jardueren guztietan, eta bereziki zaintzea gazteenentzako jarduerak. Zentzu horretan, adibidez, Olientzero ez ezik, Mari Domingi ere joaten da 1. mailako Gabonetako festara, eta lehen ez zen hala izaten. Bestalde, Durango eta Iurretako 5 urtetik 6 urtera arteko ikasleentzat egiten diren kontzertu pedagogikoetan, plantilla instrumentaleko emakume eta gizonen presentzia orekatua izatea bilatzen da, eta behar den plantilla dela-eta ezinezkoa baldin bada, bi sexuek ordezkariak izatea bermatzen da.
- Emakumeek musikaren historian izan duten zereginari balioa emateko jarduerak egitea (hitzaldiak, tailerrak, kontzertuak...). Azken urteotan, lan handia egin dute zenbait erakundek, baina asko falta da gizartearen aitortzea orokorra izan arte.

- Zentroko zuzendaritza-taldean emakumeak eta gizonak ordezkaturik daude aspalditik. Ezein kasutan ere, etorkizunari begira, sexuen arteko oreka sustatuko da zentroko erabakimen-organoen artean.

Egun nabarmenak ere kontuan hartzen ditugu, eta tratamendu desberdina jasotzen dute esanahi berezia dutelako eta gizartearen proiektzio handia dutelako. Zehazki, azaroaren 25a (emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna), martxoaren 8a (emakumeen nazioarteko eguna) eta ekainaren 28a (LGBT harrotasunaren nazioarteko eguna). Egun horietan, aldarrikapen horiek babesteko jarduerak eta kontzertuak antolatzen dira, edo, bestela, eguna hutsik uzten da Durangoko Udalak antolatzen dituen jarduerekin ez gainjartzeko.

6.3. Kulturartekotasuna, aniztasuna eta bizikidetzaren sustatzeko neurriak

Gero eta ohikoagoa da hainbat jatorri kultural, hizkuntza eta ohitura dituzten ikasleak egotea, eta, horrenbestez, irakasleek jarrera eta estrategia metodologiko berriak planteatu behar dituzte ikasgelan, bereizkeria edo hezkuntza-desabantailak saihesteko. Horrelakoetan, are komenigarriagoa da hezkuntza-komunitateko kide guztiek prestakuntza-prozesuan parte hartzea. Zentroaren eta ikaslearen ingurunearen arteko harremana eta komunikazioa ere beharrezkoagoak izango dira, batez ere irakasleen eta familien artekoak.

Gure kasuan, musika-prestakuntzak eta musikak berak prozesua errazten du, hainbat jatorritako ikasleak ikasgelan bizkor integratzen laguntzen dutelako. Hain zuzen ere, beste kultura, hizkuntza edo ohitura batzuk ezagutzeko aukera gisa hartu behar da, hezkuntza-espazio aberasgarriagoak sortzen baitira, non aniztasunak zeregin nabarmena duen.

Irakasleek egoera horiek baliatu ditzakete irakasgaiaren curriculumak aldatuz, eta, hala, kulturartekotasuna eta ikasleen aniztasuna sustatzen dituzten edukiak txertatu.

Hezikidetzarekin gertatzen den bezala, neurri hauek ere zeharkakoak dira irakaskuntza-ikaskuntza prozesu osoan. Helburua balioetan hezte da, bizikidetzaren mesedetan, eta ardatz nagusia guztion arteko errespetua izanik.

6.4. Hezkuntza-eskaintza

Hezkuntza-eskaintza zentroko plazak zehazteko erabiltzen den kudeaketa-tresna da.

Urte urte, zuzendaritzak hezkuntza-eskaintza erabakiko du, eta, hori kontuan hartuta, espezialitate eta irakasgai bakoitzeko toki kopuru osoa zehaztuko. Hezkuntza-eskaintza osatuko da bi irakaskuntza moten arteko oreka bilatuz; hots, arautua eta ez-arautua orekatuz.

6.5. Orientabideak eta tutoretza

Zentroan matrikulatzen den pertsona orok tutore bat izango du esleituta, hezkuntza-aukeren inguruko orientabideak eta aholkuak emango dizkiona. Ikasle bakoitzaren musika-tresnako edo kantuko irakaslea izango da, eta irakasgai hori egiten ez dutenen kasuan, zentroak esleituko dien tutorea matrikulatuta dauden irakasgaietako baten irakaslea izango da. Zenbait espezialitatetan matrikulatuta dauden Kontserbatorioko ikasleek ikasketen aurretik hasitako musika-tresnako irakaslea izango dute tutore.

Tutorea erreferentziazko pertsona izango da ikasleak eta familiak zentroarekin harremanetan egoteko, eta hezkuntza-prozesua ondo joan dadin eta hezkuntza-komunitatean integratu dadin zainduko du. Ilde horretan, gatazkak konpontzeko lana bultzatuko du, halakorik sortzen bada, ikaslearekin hurbileko harremana edukiz.

Era berean, ikasleen ebaluazioaren jarraipena egingo du, eta horren berri emango, indarrean diren gidalerroei jarraituz.

Ikasturte bakoitzean, aurrez aurreko tutoretza-saio bat egingo da adingabeak diren ikasleen familiekin, eta, horrez gain, familiek eta ikasleek aurretiko hitzordua eska dezakete nahi dutenean, tutoretza-saioak egiteko.

Ikasleekiko harremanean, tutoretza-lanak alderdi hauek azpimarratuko ditu:

- Irakasgaiaren urteko programazioa azalduko du: helburuak, gutxieneko edukiak, ebaluazio-irizpideak, ebaluazio-prozesua, etab. Zentroaren funtzionamendua ere azalduko du, bereziki ikasleen bizitza akademikoan eragina duten administrazio-prozesuak.
- Ikasleen emaitza akademikoak balioestea eta bakoitzaren beharrak pertsonalizatzea.

- Konfiantzazko eta hurbileko harremana izatea, tutoretza-lana orientabidea izan dadin irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.
- Ikasleen autonomia eta independentzia bultzatzea, heltze-prozesuan lagundu eta autoestimua sustatzeko.
- Ikasleek zentroko jardueretan parte hartu dezaten bultzatzea.
- Ikasleen integrazioan laguntzea eta sortu daitezkeen gatazkak konpontzea edo bitartekari-lana egitea, bai ikasgelaren barruan, bai beste irakasle batzuekin.
- Hutsegiteak kontrolatzea eta horien berri ematea ikasketa-buruari eta familiei.
- Orientabide akademiko eta profesionalak ematea.

Familietik harremanean, tutoretza-lanak alderdi hauek azpimarratuko ditu:

- Familiak zentroan parte hartu dezaten bultzatzea.
- Irakasgaien programazioei buruzko informazioa emateko bide eraginkorrak finkatzea, eta ikasleek helburuak erdiestea.
- Familiak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan inplikatzeko, eta, horretarako, aurrerapausoen, zailtasunen eta hartu beharreko neurrien berri ematea. Halaber, laguntza eskatuko zaie neurri horiek gauzatzeko.
- Goragoko maila edo etapetara igotzeko aukerak azaltzea, baita maila edo etapa horietara sartzeko moduak ere.

Irakasle-taldearekiko harremanean, tutoretza-lanak alderdi hauek azpimarratuko ditu:

- Hezkuntza-ekintza bere ikasleen gainerako irakasleekin koordinatzea, ikasketa-buruarekin batera.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat curriculuma egokitzeko aukera aztertzea.
- Mintegiburuarekin eta ikasketa-buruarekin batera, irakasleak ebaluazio-prozesuarekin koordinatzeko lana erraztea.

6.6. Sartzeko eta igotzeko sistema

Zentroan matrikulatzeko prozesua bi alditan banatzen da:

- Barneko matrikulazioa: martxotik aurrera. Matrikulazioa automatikoki egingo da, baja idazkaritzan eskatzen ez bada. Behar diren toki-zozketak egingo dira, aurrerago azalduko den lehentasun-ordenari jarraituz.
- Kanpoko matrikulazioa: ekainean. Udalerrian erroldatuta daudenek matrikulatzeko epe bat izango dute, eta erroldatuta ez daudenek, beste bat.

Behin ikasturtea hasita, ikasleak sartu ahalko dira toki librerik baldin badago eta Musika Hizkuntzako Sailak balioespen positiboa egiten badu.

Musika Eskolako 1. maila

Maila honetako ikasleak adina soilik kontuan hartuz sartuko dira Eskolara eta igoko dira mailaz maila. Matrikulazio-ordenari jarraituko zaio.

1. maila amaitutakoan, tokia bermatuko zaie 2. mailan, baina ez da ziurtatuko toki hori eskatutako espezialitaterako izango denik.

Barneko ikasleek lehentasuna izango dute, zentroan lehenbizikoz matrikulatzen diren kanpoko ikasleen aldean.

Musika Eskolako 2. maila

1. mailatik datozen barneko ikasleak musika-tresnarekin hasten direnean, zozketa egingo da, espezialitateren batean eskaria handiagoa bada eskaintza baino. Edozein kasutan ere, musika-tresna hautatzeko orduan, 1. mailatik datozen barneko ikasleek lehentasuna izango dute barneko ikasle heldu eta gazteen aldean.

Barneko ikasle guztiek lehentasuna izango dute, zentroan lehenbizikoz matrikulatzen diren kanpoko ikasleen aldean. Kanpoko ikasleak matrikulazio-ordenari jarraituz onartuko dira, tokia dagoen espezialitateetan.

Maila honetako modulueta igotzea ez da zertan ikasturtearekin bat etorri, nola musika-tresnen kasuan, hala musika-hizkuntzaren kasuan. Tutoreak egoera azalduko die ikasleei eta familiei, zentroko ikasketa-proiektua aintzakotzat hartuta.

Musika Eskolako 3. maila

Maila honetan, musika-tresnarekin hasi ahalko dira Musika Eskolako 2. maila gainditu dutelako edo, bestela, mailak dakartzan irakaskuntzak behar bezala jarraitu ditzaketela frogatu dutelako, proba baten bidez, baldin eta tokia badago eta matrikulazio-ordenari jarraikiz. Ikasle batek maila honetan dagokiona baino gaitasun handiagoa badu, 4. mailara igoko da.

Maila honetako lau modulueta gora egitea ez da zertan ikasturtearekin bat etorri. Tutoreak egoera azalduko die ikasleei eta familiei, zentroko ikasketa-proiektua aintzakotzat hartuta.

Ikasleek maila honetan jarraitzeko aukera berrikusi egingo da, klaseei probetxu ateratzen ote zaien eta zentroaren gaitasuna kontuan hartuta. Lehentasuna 2. mailako ikasle berriek izango dute.

Musika Eskolako 4. maila

Maila honetan, musika-tresnarekin hasi ahalko dira Musika Eskolako 3. maila gainditu dutelako edo, bestela, mailak dakartzan irakaskuntzak behar bezala jarraitu ditzaketela frogatu dutelako, proba baten bidez, baldin eta tokia badago eta matrikulazio-ordenari jarraikiz.

Maila honetako lau modulueta gora egitea ez da zertan ikasturtearekin bat etorri. Tutoreak egoera azalduko die ikasleei eta familiei, zentroko ikasketa-proiektua aintzakotzat hartuta.

Ikasleek maila honetako A ibilbidean jarraitzeko aukera berrikusi egingo da, klaseei probetxu ateratzen ote zaien eta zentroaren gaitasuna kontuan hartuta. Lehentasuna 2. mailako ikasle berriek izango dute. Ez da B ibilbidean geratzeko mugarik egongo, baldin eta konpromiso maila nahikoa erakusten bada.

Gradu profesionaleko Kontserbatorioa

Musika-ikasketa profesionaletarako sartzeko, probak egin eta gainditu behar dira, kanpoko hautagaiekiko berdintasun-baldintzetan.

Espezialitate bakoitzean eskaintzen den toki kopurua zentroak ikasturterako duen gaitasunaren arabera izango da.

Probetan matrikulatzeko iragarkia argitaratuko da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finkatzen duen egutegiari jarraituz.

Probak egiteko egunak aldeztu aurretik plazaratuko dira zentroaren web-orrian eta iragarki-taulan, eta ekainaren hirugarren astean izan ohi dira, gutxi gorabehera.

6.7. Hizkuntzen erabilera eta tratamendua

Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak gaztelania eta euskara dira. Hori dela eta, zentroak lan egingo du hezkuntza-komunitate osoak bi hizkuntzetako edozeinetan komunikatzeko duen eskubidea errespetatzeko.

Ingurunea (euskalduna batik bat) eta ikastetxe publikoa gairela kontuan hartuta, euskararen erabilera eta hedapena sustatzeko misioa dugu, eta neurri hauek ditugu erabilera normalizatzeko:

- Euskara ikasleen eta irakasleen arteko komunikazio-hizkuntza izatea.
- Dokumentu publiko guztiak elebitan idatzita egotea (web-orria, inprimakiak, sare sozialak, kartelak...).
- Euskara erabiltzea sortzen den material didaktiko guztian.
- Familiekiko harremana haiek hautatutako hizkuntzan bideratzea.

6.8. Trebakuntza eta berrikuntza

Irakasleak trebatzea funtsezkoa da egungo gizartearen hezkuntza-erronka berriei erantzuteko. Irakasleen gaitasun profesionala hobetzeko lagungarria da, eta, hortaz, baita kalitate oneko irakaskuntza eskaintzeko ere.

Irakasleentzako trebakuntza-planak xede hauek eduki behar ditu:

- Hezkuntza-jarduna perfektionatzea.
- Ikasleen errendimendua hobetzea.
- Irakaskuntza-jardun berriak garatzea.
- Truke profesionala eta ezagutzaren hedapena sustatzea.
- Irakasleen eta hezkuntza-komunitate osoaren arteko lan kooperatiboa suspertzea.
- Garapen profesional eta pertsonala aberastea.

Zentroak suspertu eta erraztuko du irakasleek Durangoko Udalaren trebakuntza-protokoloko eskaintzetan parte hartzea, lehentasun-ordena honekin:

- Zentroak proposatutako eskaintzak.
- Beste entitate batzuek proposatutakoak; adibidez, EHMEk edo Hezkuntza Sailak.
- Irakasleek proposatutako ekimen pertsonalak.

Zentroak erraztuko du irakasleek musika-lanbidearekin lotutako jardueretan parte hartzea, bai interpretazioari, bai sormenari dagokienez, jarduera profesional hori onuragarria baita ikasleen trebakuntzan, irakasleak egiazko erreferentzia artistiko bilakatzen dira eta.

6.9. Musika-tresnak eta espazioak maileguan hartzea

6.9.1. Musika-tresnak

Zentroak maileguan eskainiko dizkie ikasleei hari-instrumentuak, haize-instrumentuak eta espezialitateetakoak, ikastetxearen AJAren 84. artikuluan agertzen den moduan.

6.9.2. Ikasgelak

Zentroak ikasgelak erabiltzeko aukera ematen die ikasleei, ikasteko, ikastetxearen AJAren 85. artikuluan agertzen den moduan.

6.9.3. Beste espazio batzuk

Beste espazio batzuk erabili ahal izateko ikastetxearen AJAren 90. artikuluan agertzen den araudia hartuko da kontuan.

7. Zentroko hezkuntza-proiektuaren indarraldia eta prozedura

Zentroko hezkuntza-proiektu hau ordezkartza goreneko organoak onartu du 2026ko otsailaren 6an, eta aldiari behin berrikusi ahalko da. Orobat, aldatzeko aukera dago, hezkuntza-komunitateko edozein kidek proposatuta.

Aldaketa txikiak zentroko urteko plana idazteko prozesuan bertan proposatu eta definituko dira, eta urteko memorian. Dokumentu osoa berrikusi behar dela uste bada, zentroko hezkuntza-proiektua idazteko batzorde bat eratuko da. Batzorde horren lana eztabaida koordinatu eta dinamizatzea izango da, eta, halaber, onartu beharreko dokumentu berriaren hasierako idazketa bere gain hartzea.

Dokumentu hau hezkuntza-komunitate osoaren esku egongo da zentroaren web-orrian.

ERANSKINAK

1. mailako ikasketa-plana

ADINA	IRAKASGAIK
4 urte	Musika eta Mugimendua
5 urte	Musika eta Mugimendua
6 urte	Musika eta Mugimendua
7 urte	Aurretresna Lengoaia Musikaren hastapenak

2. mailako ikasketa-plana, haurrak

LENGOAIA MUSIKALA ETA BESTE IRAKASGAI BATZUK	TRESNA	TALDEAK
2.1	2.1	Taldea (Instrumentuaren eta mailaren arabera)
2.2	2.2	
2.3 Abesbatza	2.3	
2.4 (LM-ren amaiera) Informatika	2.4	
Informatika Abesbatza	3. mailara edo kontserbatorioko sartzeko proba	

2. mailako ikasketa-plana, helduak eta gazteak

LENGOAIA MUSIKALA	TRESNA
2.1	
2.2	2.1
2.3 (LM-ren amaiera)	2.2
	2.3
	Jarraipena urtero berrikus daiteke

3. mailako ikasketa-plana

	A IBILBIDEA Banakako Klasea	B IBILBIDEA Klase Kolektiboa	C IBILBIDEA Bakarrik Taldea
3.1	Banakako klasea 30' Taldea Beste irakasgai batzuk	Klase partekatua 45' Beste irakasgai batzuk	
3.2			
3.3			Bakarrik taldea
3.4			Beste irakasgai batzuk


Jarraipena urtero berrikus daiteke

4. mailako ikasketa-plana

	A IBILBIDEA Banakako Klasea	B IBILBIDEA Klase Kolektiboa
4.1	Banakako klasea 30' Taldea Beste irakasgai batzuk	Taldea konboa / Ganbera Inprobizazioa
4.2		
4.3		
4.4		

Jarraipena urtero berrikus daiteke

Zentroko antolakuntza-egituraren organigrama



Ebaluazio-Plana

EBALUAZIO-PLANA

Durangoko Bartolome Ertzilla

Musika Eskola eta Maila Profesionaleko Kontserbatorioa

Aurkibidea:

1. Ebaluazio-mota.
2. Ebaluazio-kopurua eta –aldiak. Aurre-ebaluazioak. Salbuespenak.
3. Ebaluazio jarraia. Ebaluazio-jarduerak. Antolaketa.
 - 3.1. Ebaluazio jarraia
 - 3.2. Ebaluazio-jarduerak
 - 3.2.1. Musika-Hizkuntza.
 - 3.2.2. Instrumentu-espezialitatea.
 - 3.3. Koordinazioa.
 - 3.4. Erdi-mailako ikasgai teorikoak.
 - 3.5. Instrumentu-taldeak: banda, orkestra, abesbatza
 - 3.6. Ikasgai osagarria: Ganbera
4. Kalifikazioa eta haztapena.
 - 4.1. Musika Eskola. Musika-Hizkuntza. Instrumentu-espezialitatea.
 - 4.2. Kontserbatorioa. Musika-Hizkuntza. Instrumentu-espezialitatea.
5. Ebaluazio-batzordeak erdi-mailako Kontserbatorioan. Azken ebaluazioa.
6. Emaitzak jakinaraztea.
7. Notak bildu eta igotzea. Kalifikazio-buletinak.

1. **Ebaluazio-motak:**

Musika Eskola: jarraia.

Maila profesionaleko Kontserbatorioa: jarraia eta azterketa.

2. **Ebaluazio-kopurua eta -aldiak:**

Ikasturteko lauhileko bakoitzean bi ebaluazio egiten dira, bai Musika Eskolan, bai Kontserbatorioan. Hala, urtarril-otsaileko aste batean eta maiatz-ekaineko beste batean ebaluazio-jarduerak egiten dira. Egun horiek familiei eta irakasleei zabaltzen zaien eskola-egutegian eta "Ikasturteko Urteko Antolaketa" prozeduran zehazten dira.

Bi aste horietan ez da ohiko eskolarik egoten, N1ekoak izan ezik, eta irakasle eta ikasle guztiak entzunaldietan eta ebaluazio-probetan murgilduta egoten dira.

Aurre-ebaluazioa.

Ikasturte bakoitzean bi aurre-ebaluazio egiten dira.

- lehena azaroan (1. eta 2. asteak).
- bigarrena Aste Santuko oporren arabera, betiere lauhileko ebaluazioa baino sei aste lehenago.

Helburua: tutoreei eta irakasleei ikasle bakoitzaren bilakaeraren berri ematea, behar diren neurriak hartu ahal izateko, familiekin komunikatzeko eta abar, lauhilekoko ebaluazio bakoitzaren data baino nahiko lehenago.

Oharra: Familiekiko komunikazioa fitxak irekitzen direnetik 15 eguneko epean egingo da.

Prozedura:

Ikasketa Burutzak irakasleei jakinarazten die lana egiteko epea.

Familiei jakinarazteko arduraduna: tutorea.

Urtarril-otsaileko ebaluazio-astearen ondorengo astean, ERREFORTZUKO ikasleen aurre-ebaluazioa egitea, Kontserbatorioan egiten denaren antzekoa.

Salbuespenak

Azterketa eta probetara ez joateko arrazoitzat hartzen dira gaixotasunak edo onartutako beste kausa batzuk (familia, etab.), eta buletinean klaseko kalifikazioa gehitzen da, informazio gisa, "oharrak" atalean, kontuan hartuta ebaluazioa jarraia dela.

Gaixotasun arinagatikoko baja bada (gripea, etab.), azterketa atzeratu egingo da.

3. **Ebaluazio jarraia. Ebaluazio-jarduerak. Antolaketa:**

3.1. **Ebaluazio jarraia.**

Ebaluazioa legez jarraia da. Horregatik, klaseko nota irakasleen koadernoan edo eskola-egunerokoaren arabera jartzen da, astetik astera.

Irakaslearen koadernoan: ikaslearen ibilbidearen asteko erregistroa, dagokion kalifikaziorako.

Kontuan hartuko dira justifikatu gabeko hutsegiteak. Hutsegiteak % 25 baino gehiago badira, plaza galduko da. Tutoreak, 2. hutsegitearen ondoren, familiari jakinarazi behar dio.

Lehen lauhilekoan hutsegiteak % 10 baino gehiago badira, Ikasketa Burutzari jakinaraziko zaio eta bertan jarraitu dezakeen ala ez baloratuko da.

Lauhilekoka zenbatuko dira; musika-tresnaren kasuan, hiruhileko batean justifikatutako 4 hutsegite, eta musika-hizkuntzan justifikatutako 8 hutsegite. Kasu hauetan plaza galduko da.

Era berean, ebaluazio jarraia osatzen duten ebaluazio-jarduerak egiten dira (ebaluazio-tresnak), eta azterketen eta entzunaldien emaitzak ematen dira, dagokion irakasleen artean kontrastatzen direnak.

Antolaketa eta haztapena hurrengo ataletan zehazten dira.

3.2. **Ebaluazio-jarduerak.**

3.2.1. Musika-Hizkuntza:

Ikasleek ariketa bana egiten dute lau hileko ebaluazio bakoitzean:

- Lehenik, ariketaren irakurketa erritmikoa egiten dute. Bertan, trebetasun erritmikoaren eta noten irakurketaren garapena ebaluatzen da.
- Ariketa hori bera abestuz egiten da, pianoak lagunduta. Intonazioa soilik ebaluatzen da.

Irakasle arduradunak: taldeko ohiko irakaslea eta musika-tresnako irakasle bat.

Ebaluazio-asteetan, musika-tresnako irakasleak musika-hizkuntzako irakasleekin lankidetzan aritzen dira ikasgai hori ebaluatzeko.

- Talde bakoitzaren kontrola saio bakar batean egiten da, bere eskola-ordutegiarekin bat etorritik.

Horrela, ebaluazio-asteetan, Musika-Hizkuntzako ikasleak ohiko bi eskoletako bakar batera joaten dira, eta dagozkien ariketak egiten dituzte. Aurreko astean, irakasleak ohar bidez jakinaraziko die zein egunetan joan behar duten.

Kontserbatorioko ikasleak asteko bi saioetako batera joaten dira, eta bertan ariketa praktikoa egiten dute (intonazioa, erritmoa eta inprobisazioa). Analisi- eta diktaketa-ariketak aurreko astean egingo dira, entzunaldiak eta gainerako azterketak errazago koordinatzeko.

- Musika-Hizkuntzako 2.4 ikasturtearen amaiera: ikasle guztiek 2. lauhilekoko azterketa egingo dute, irakaskuntza arautuan sartzeko probara aurkeztuko direnak barne.

- Kalifikazioak biltzea:

Zerrendak taldeka prestatzen dira, Excel dokumentuan, gehitutako haztapenarekin, errazago kudeatu eta biltegitratzeko.

Ikusi kalifikazioa eta haztapena 4. puntuan.

3.2.2. Instrumentu-espezialitatea: entzunaldiak eta ikasgelako probak.

Musika-tresnaren entzunaldi orokorrak

- Gutxi gorabehera ordubeteko iraupena duten entzunaldi edo kontzertu publikoak egiten dira.
- Horietako bakoitza espezialitate edo familia instrumental bati eskainia dago.
- **Entzunaldiak derrigorrezkoak dira eta ikasle guztiek parte hartzen dute.** Pianoa izan ezik, musika-tresnako lehen urteko ikasleek ez dute urtarrileko entzunaldietan parte hartzen. Ikasle helduen kasuan parte-hartzea ez da derrigorrezkoa.
- Epaimahaiak: Ikaslearen irakaslea eta bere saileko beste espezialitate bateko bi ikaskide egoten dira, eta bertan egon daitezke instrumentu-espezialitate bereko irakaslea eta saileko beste edozein irakasle ere.
- Orduetgia eta lekua: Arratsaldeko orduetgia: 17:00etatik 21:00etara ikastetxeko Ekitaldi Aretoan.
- Errepertorio piano jotzaileak koadro bat izango du, bere atean itsatsiko duena. Bertan, eskolako ikasleek izena eman ahal izango dute entseguak egiteko.

Instrumentu-gelako probak eta azterketak (Azterketa Teknikoa)

Mintegi-arduradunek Musika Eskolako zein Kontserbatorioko ikasleentzat antolatzen dituzte saio horiek, irakasleak inplikaturik egon daitezkeen gainerako ebaluazio-jardurekin koordinatuta.

Pianoa: Pianoko ikasleek 2. mailatik 3. mailara igarotzeko azterketa egiten dute (Ikasgelako proba).

2. mailaren amaiera

Etapia hau amaitzen duten ikasleek maiatzetik ekainera egiten den kontzertu-ospakizun berezi batean parte hartzen dute.

Kontzertu hau amaitzean, tutoreak Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskolako diploma ematen die.

3.3. Koordinazioa. Ebaluazio-asteko antolaketa:

Ikasketa Burutzari dagokio orduetgiak eta ikasgelak antolatzea eta koordinatzea, mintegiko arduradunekin koordinatuta.

3.3.1. Instrumentu-espezialitate bakoitzaren denbora-beharrak jasotzea, entzunaldien koadrantea egiteko.

- Mintegiko arduradun bakoitzak ikasleen entzunaldietarako zenbat denbora beharko den jakinarazten dio Ikasketa Burutzari.
- Entzunaldi bakoitzean inplikaturako irakasleak daude.
- Saioak erreperitorio piano-jotzaileak bi ordu jarraian parte hartu behar ez izateko moduan antolatzen dira. Horregatik, piano espezialitateko saioak lehenengoaren eta azkenaren artean egiten dira. Musika Eskolako eta Kontserbatorioko ikasleek parte hartzen dute. Azken honi dagokionez, jarduera hau bere azterketaren zati gisa baloratzen da.
- Kontzertu-programak: Entzunaldi bakoitzaren arduradunak egiten du.
Power-Point bat egiten da, ekitaldi-aretoko euskarri digitala erabiliz.
- Programa erreperitorio piano-jotzaileari entregatu behar zaio, kontzerturako materiala prestatzeko behar besteko aurrerapenaz.
- Aretoko sarreran programa bat jarriko da.

3.3.2. Entzunaldien ordutegi-koadrantea ebaluazio-saioak egiteko koadrantearekin koordinatu behar da, Musika-Hizkuntzako irakasleekin.

- Musika-Hizkuntzako irakasle bakoitzak musika-tresnako kide batekin batera egiten du Musika-Hizkuntzako proben ebaluazioa. Beraz, entzunaldien eta hizkuntza-proben ordutegiak koordinatu behar dira.
- Kontuan izan behar da instrumentu-espezialitate batzuek ordu gehiago behar dituztela erdi-mailako azterketetarako, batez ere pianorako.
- Komunikazioa: Ikasketa Burutzak irakasle guztiei jakinarazten dizkie koadrante horiek, hauek egin baino hilabete lehenago.

Behin betiko koadroa zuzendu ondoren atezainari eta administrazio-idazkariari ere jakinaraziko zaie, eta irakasleen gelan jarriko da.

Sarreran eta/edo iragarki-taulan aste osoko entzunaldien informazio-kopia bat jarriko da.

Ebaluaziorako zehaztutako epeaz kanpoko egunetan entzunaldiak edo azterketak egin nahi dituzten irakasleek Ikasketa Burutzari eskatu beharko diote, behar bezala justifikatuta, ebaluazio-bileraren data zalantzan jarri gabe.

3.3.3. Familiei entzunaldiaren, azterketaren eta abarren ordutegia idatziz jakinaraziko die tutoreak.

3.4. Erdi-mailako ikasgai teorikoak.

- Musika-Hizkuntza I eta II: probek bost atal dituzte: intonazioa, erritmoa, inprobisazioa, diktaketa eta analisisa.

- Harmonia I eta II, Musikaren Historia I eta II eta Analisia I eta II. Jarduerak: ikasgelako ariketak eta ebaluazio jarraia.
- Analisi-, historia- eta harmonia-probak ebaluazio-astearen aurreko astean egingo dira, entzunaldien eta gainerako azterketen koordinazioa errazteko.

3.5. Instrumentu-taldeak: Banda, Orkestra, Abesbatza.

Gaitasunen eta beste alderdi batzuen balorazioa ICPn jasotzen da, gainerako espezialitateetan bezala.

Taldeek ikastetxetik kanpo emandako kontzertuak ikasgai horren ebaluazio-proba dira.

Kontzertu batera ez joateak, taldeko ikasgaia ez gainditzea dakar.

3.6. Ikasgai osagarria: Ganbera

Entzunaldian bere irakaslea, ganbera ematen duen irakasle bat eta ikasleak jotzen duen instrumentu-familiako irakasle bat egongo dira.

4. Kalifikazioa eta Haztapena.

4.1. Musika Eskola: arautu gabeko irakaskuntza.

MUSIKA-TRESNA

Ikasgai guztietan bi nota erregistratzen dira:

- Ebaluazio jarraia edo klaseko nota: klasean jasotzen da, saioz saio. Nota honek % 100 balio du.
- Ariketa teknikoaren azterketako nota: nota hau informatiboa da eta ebaluazio notan ez du inongo baliorik.

MUSIKA-HIZKUNTZA

Kurtso guztietan honela haztatuko da:

Ebaluazio jarraia	% 60
Azterketako nota	% 40

Azterketako nota: funtsezko bi irizpide edo gaitasun baloratzen dira

Moduluaren arabera desberdin haztatzen dira:

2. maila	Intonazioa	Erritmoa
2.1 eta 2.2 moduluak	Azken notaren % 10	% 30
2.3 eta 2.4 moduluak	% 15	% 25

Helduen 1. eta 2. moduluak	Azken notaren % 10	% 30
Helduen 3. modulua	% 15	% 25

4.2. Maila profesionaleko Kontserbatorioa. Irakaskuntza arautua.

MUSIKA-TRESNA

Azterketak epaimahaiarekin: kontuan izan 3.2.2 atalean ezarritakoa.

Pertsona bakarreko sailaren kasuan, Ikasketa Burutzak proposatuko du honen osaera, irakasle espezialistarekin koordinatuta.

Klaseko nota	Azterketa
% 60	% 40

Lehenengo eta bigarren ebaluazioko azken nota zenbaki osoa edo 0'5 dezimalduna izango da. Gainerako balioak hurbilen dagoen zenbakira biribildu beharko dira, eta ikasle horren irakasleak erabakiko du biribiltzea gorantz edo beherantz egin.

MUSIKA-HIZKUNTZA

Azterketak epaimahaiarekin: irakasle-tutorea eta beste musika-tresna irakasle bat.

Klaseko nota	Azterketa
% 60	% 40

IKASGAI TEORIKOAK

Azken kalifikazioa ebaluazio jarraia eta azterketa gehituta lortzen dena da. Suspenditua izatekotan, errekupeazioa egingo da, notak eman eta gero.

INSTRUMENTU-TALDEAK: BANDA, ORKESTRA, ABESBATZA, GANBERA

Taldeek ikastetxetik kanpo emandako kontzertuak ikasgai horren ebaluazio-proba dira.

Kontzertu batera ez joateak, taldeko ikasgaia ez gaitzitzea dakar.

Azken ebaluazioa:

- Ikasgai bakoitzeko irakasleak azken nota proposatuko du, eta ikasturte amaierako ebaluazio-bileran azalduko du.
- Nota CENTROS NET-era igo behar da ebaluazio-bilera egin aurretik.
- Azken lauhilekoan suspenditutako ikasgaiak errekupeatzeko erabakiak ebaluazio-bileran proposatu eta landu behar dira.

- Azterketak aurreratuko zaizkie ebaluazioaren aurretik espedienteak eduki behar duten ikasleei, batxilergoko ikasgaiak baliozkotzeko, edo justifikatutako beste arrazoi batzuk direla medio, nota horiek ikastetxeak eskatutako datetan bidaltzeko helburuarekin. Kurutze Santuko kontzertuan parte hartu ezin duten ikasleei entzunaldi bateratua egingo zaie. Era berean, ikasle horiek ebaluatzen ebaluazio-bilera gehigarri bat egingo da.

Azken nota

Bigarren lauhilekoa ebaluatu ondoren azken nota jarriko da, kurtsoko errendimendu orokorra kontuan hartuta. Nota hau ikasgaiari dagokion irakasleak proposatuko du, gainerako irakasleen eta dagokion ikaslearen onespenerarekin. Zenbaki osoa izango da.

Legearen arabera ebaluazioa jarraia da, eta beraz, justifikatutako arrazoi batengatik (gaixotasuna, etab.) irakasleak ezin badu bigarren ebaluazioko azterketa egin, kalifikazioa ezingo da Ez Aurkeztua izan. Kasu horretan bi aukera daude: data aldatzea edo klaseko nota jartzea.

Kurtso amaierako ezohiko azterketa

Azterketako notak % 100 balio du, eta ebaluazio jarraituko nota ez da kontuan hartuko. 1etik 10era haztatuko da.

Ezohiko azterketak egin ondoren, Ikasketa Burutza irakasleekin harremanetan jarriko da, lortutako emaitzak baloratzeko. Bilera bat egingo da.

Ikasgaiaren bat suspendituta izanez gero, tutorea ikaslearen familiarekin batzartuko da, haren egoera azaltzeko.

Ikaslea mailaz igotzen da bi ikasgai gainditu gabe izan arren.

5. Ebaluazio-bilerak:

5.1. Erdi mailako Kontserbatorioa: lauhilekoko ebaluazio batzordea.

Dagokion kurtsoan ikasgaiak ematen dituzten irakasle guztiak joaten dira.

Justifikatutako arrazoren batengatik (gaixotasuna) irakasleren bat ezin bada bertaratu, Ikasketa Burutzak aurkeztuko ditu hark jarritako kalifikazio eta iruzkinak.

Ikasle bakoitza banan-banan ebaluatuko da, eta garrantzitsutzat hartzen den alderdiari buruzko iruzkin laburra egingo da, hobetzeko beharrak edota izandako aurrerapenak nabarmentzeko.

Tutoreak ikasle bakoitzaren fitxan jasoko du haren ebaluazioaren edukia: irakaslearen koadernoan.

Ezohiko ebaluazio-bilera egingo da ekaineko ezohiko azterketen ondoren, ekainean ikasgaiak suspenditu dituzten ikasleen jarraipena egin eta mailaz igoko diren ala ez aztertzeko. Ebaluazio-bilera horretara honako hauek joango dira: tutorea, suspenditutako ikasgaiak dagozkien irakasleak eta Ikasketa Burutza.

5.2. Arautu gabeko irakaskuntza: Musika Eskola.

Biolin eta biola ikasgaietan: lauhilekoko entzunaldien ondoren, entzunaldi horietan parte hartu duten irakasleek ebaluazio-saio bat egingo dute. Saio horretan ikaslearen bilakaeraren eta talde, ordesktra eta eskolan eskainitako klaseen balorazioa egiteko interesgarriak izan daitezkeen datuak mahaigaineratuko dira.

Mintegi bakoitzeko arduradunek Idazkaritzari jakinarazten dizkiote ikastaroaren antolaketari eragiten dioten ondorioak, gai hauei buruzkoak:

- Igoera: moduluz igotzea, maila, klase partekatuetara sartzea.
- Orkestra, banda eta instrumentu-taldeetan parte hartzeko proposamenak.

6. Emaizak jakinaraztea eta biltzea: Tutoretza.

Familiei jakinarazpenak bi modutan emango zaizkie: CENTROS NET plataforma erabiliz eta beraiekin tutoretza batzarrak eginez.

Buletinak:

Familiaren batek buletina eskatzen badu, zuzenean plataformatik inprimatuko da.

Musika Eskolako eta Erdi Mailako Kontserbatorioko ikasleek beraien kalifikazioa jasoko dute, irakasleek gehitutako nota eta oharrekin.

Bertan ebaluatzen diren irizpideak espezialitate bakoitzeko irakasleek zehazten dituzte, dagokion Mintegiarekin koordinatuta.

Tutoretza:

- Tutoreari dagokio, gutxienez ikasturte bakoitzean behin, bere instrumentu-klaseko ikasle guztien (18 urtetik beherakoak) familiekin batzea, bai Kontserbatoriokoekin bai Musika Eskolakoekin. Aipatutako bilera lauhilekoko lehenengo ebaluaziotik aurrera egingo da, nahiz eta tarteka familiei beste mota bateko jakinarazpenak eman (telefonoz, posta elektronikoz, etab.).
- Amankomuneko ikasgaien kasuan (Musika-Hizkuntza, Harmonia, Historia, Analisia, etab.), ikaslearen bilakaera egokia ez bada, ikasgai hauen irakaslea dagokion tutorearekin harremanetan jarriko da, aurre-ebaluazioa edo/eta ebaluazioa egin arte itxaron gabe. Tutoreek erabakiko dute nori dagokion familiari horren berri ematea.
- Musika-hizkuntzako irakasleak ikasturte hasieran ikasle berrien familiekin biltzen dira helburuak, metodologia, kontzertuak, ikastetxeko egutegia, etab. zeintzuk izango diren azaltzeko.
- Beharrezkoa dela iritziz gero, musika-hizkuntzako irakasleak lehenengo mailako ikasleen familiekin harremanetan jarriko dira, telefonoz, posta elektronikoz edo aurrez aurreko tutoretza bidez.

Ibilbide-aldaketak: alumnado de refuerzo y acceso al Conservatorio

Irakaskuntza arautua indartzeko eta/edo bertan sartzeko ikasleen proposamenak dira.

Proposamen hauek bigarren ebaluazio-astea baino lehen egiten dira, eta horretarako aurre-ebaluazio zehatz bat egiten da Aste Santuko oporren aurretik edo ondoren (komeni denaren arabera eskola-egutegia kontuan izanda), honela:

- Tutoreek egiten dituzte proposamenak.
- Proposatutako ikasleen ebaluazioa dagokion Musika-Hizkuntzako irakaslearekin alderatuko da.
- Proposamena familiari jakinarazten zaio.
- Proposamen irmoa zuzendaritza-taldeari helarazten zaio.

7. Notak bildu eta igotzea

Notak CODEX (CENTROS NET) aplikaziora bakarrik igoko dira.

Kalifikazioak gaitasunen arabera egiten dira, 1etik 10era. Kalifikatzen diren gaitasunak ICPtik eratortzen dira.

Dokumentu honen azken eguneratzea:

- Klasutroa: Ohiz kanpoko klaustroan onartua 2024ko urtarrilaren 26an
- OOG: OOGk 2024ko otsailaren 23an onartua